TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA OSATZEN DUTEN UDALERRIEN LURRALDE-EREMUAN ERABILITAKO ARROPA ETA BERRERABIL DAITEZKEEN OBJEKTU TXIKIAK GAIKA BILTZEKO ZERBITZUA EMATEKO, BILDUTAKO MATERIALAK KUDEATZEKO, EDUKIONTZIAK HORNITZEKO, INSTALATZEKO, GARBITZEKO ETA MANTENTZEKO KONTRATUA PROZEDURA IREKI BIDEZ, OHIKO IZAPIDEZ ETA HAINBAT ESLEIPEN-IRIZPIDEREN BIDEZ KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA

DILIGENTZIA: Nik, Tolosaldeko Mankomunitateko Idazkari kontu hartzaileak egin dut, baldintza administratibo zehatzen agiri hau 2023ko maiatzaren 15ean egin zen ez ohiko bilkuran Batzarrak hartutako erabakiaren bidez onartu zela jasota gera dadin.

Idazkari kontu hartzailea,
Stua.: Leire Arteaga Zumeta

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIA, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA OSATZEN DUTEN UDALERRIETAN ETXEKO OLIO ERABILIA ETA ETXEKO HONDAKIN ARRISKUTSUEN BILKETARAKO ETXOLAK GARBITZEKO ETA MANTENTZEKO ETA ANTZEKO LANAK EGITEKO ZERBITZUAREN KONTRATUA PROZEDURA IREKI BIDEZ, IZAPIDETZE ARRUNTAREN BIDEZ ETA ESLEITZEKO ZENBAIT IRIZPIDEREN BIDEZ KONTRATATZEKO.

EZAUGARRIEN KOADROA

1. BOTERE ESLEITZAILEA

Administrazio kontratatzailea: Tolosaldeko Mankomunitatea

Kontratazio-organoa: Batzarra

Saila / Zerbitzua: Bulego teknikoa

Sailaren helbidea: Bazurka industri gunea, 50-20260 ALEGIA (Gipuzkoa)

Posta elektronikoa: info@tolosaldekomankomunitatea.eus

2. KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Kontratatzailearen profila: www.tolosaldekomankomunitatea.eus

3. KONTRATUAREN XEDEA

Lehiaketa honen xedea izango da Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan erabilitako arropa eta objektu berrerabilgarriak gaika biltzeko, bildutako materialak kudeatzeko eta edukiontziak hornitu, instalatu, garbitu eta mantentzeko zerbitzua kontratatzea.
Zerbitzua EZ da loteka kontratatuko.

CPV kodea(k): 90511200-4 etxeko hondakinen bilketa zerbitzuak eta 90514000-3 hondakinen birziklapen zerbitzuak.

4. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA (BEZa BARNE)

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZik gabe) 36.031,31 €/urtekoa da. Lizitatzaileek prezio horiek hobetu ahal izango dituzte beren eskaintzetan.

Kontratuaren prezioan sartuko dira Mankomunitatearen lurralde-eremuan bildutako hondakinen bilketatik, sailkapenetik eta azken kudeaketatik eratorritako gastu guztiak.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua

Kontratuaren oinarrizko aurrekontua (BEZ gabe)	Euroak	BEZ % 10	Kontratuaren oinarrizko aurrekontua (BEZ barne)
1 urte	36.031,31€	3.603,13€	39.634,44€

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

3 urte	108.093,93€	10.809,39€	118.903,32€

Kontratuaren balio zenbatetsia

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 1 urte (BEZ gabe)	Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 3 urte (BEZ gabe)	Luzapena 1 urte (BEZ gabe)	Aurreikusitako aldaketak	Kontratuaren balio zenbatetsia (luzapenak barne)+(salmentak)
36.031,31€	108.093,93€	36.031,31€	0	144.125,24€

5. ESLEIPEN-PROZEDURA, ESPEDIENTEA IZAPIDETZEA ETA ARAUBIDE HARMONIZATUARI LOTUTAKO KONTRATUA

Esleipen-prozedura: irekia
Espedientearen izapidetzea: arrunta
Araubide harmonizatuari lotutako kontratua: BAI

6. FINANTZAKETA

Finantzaketa: %100 Tolosaldeko Mankomunitatea

7. URTEROKOAK

Aurrekontu-saila:

1.0000.227.25.162.10

2023 ekitaldia: 3.302,87€ (BEZ barne) (hilabete bat)

2024 ekitaldia: 39.634,44€ (BEZ barne)

2025 ekitaldia: 39.634,44€ (BEZ barne)

2026 ekitaldia: 39.634,44€ (BEZ barne) (hamaika hilabete)

8. GAUZATZEKO EPEA/IRAUPENA

Epea guztira: 3 urte

Epe partzialak: EZ

9. LUZAPENA

Luzapena: BAI

Luzapen epea: 1 urte

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

Kontratuaren iraupena lau urtekoa izango da, eta urte batez luzatzeko aukera egongo da. Beraz, gehieneko iraupena bost urtekoa izan daiteke.

10. ORDAINTZEKO MODUA

Ordainketa modua: 30 egun faktura bakoitza behar bezala jasotzen denetik

11. BERME EPEA

Berme epea: 3 hilabete, kontratua likidatzen denetik.

12. HARTZEKO ETA ENTREGATZEKO / GAUZATZEKO LEKUA

Zerbitzua Tolosaldeko mankomunitatea osatzen duten herrien eremuan gauzatuko da.

13. ALDAEREN ONARGARRITASUNA

Aldaeren onargarritasuna: EZ

14. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Prezioak berrikustea: EZ

15. ENPRESA- EDO LANBIDE-BAIMENAK/-GAIKUNTZAK, KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA ETA TEKNIKOA EDO PROFESIONALA

1) ENPRESA- EDO LANBIDE-BAIMENAK/-GAIKUNTZAK (SPKLren 65 art.)

Ez.

2) KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA

Lizitatzaileek, nazionalak zein atzerrikoak izan, kaudimen ekonomiko eta finantzario egokia erakutsi beharko dute kontratua behar bezala gauzatzeko. Kaudimen hori honako bitarteko hauen bidez egiaztatuko da, jarraian zehazten diren irizpideekin bat etorriz:

Pertsona juridikoen kasuan, lizitatzailearen edo taldea osatzen duten lizitatzaile bakoitzaren azken 3 urteetako urteko kontuen kopurua zerrendatuko du, 3 ekitaldi horietako emaitza orokorra agerian jarriz eta egiaztatu beharko du, kontratuari dagokion eremuan urteko negozio-bolumena, eskuragarri dauden azken hiruren arteko ekitaldirik onenari buruzkoa, enpresaburuaren eraketa- edo jarduera-hasieraren dataren arabera, gutxienez kontratuaren urteko balioaren adina dela, hau da, 36.031,31€ (BEZ gabe).

Baterako eskaintzen kasuan, ABEEko kide guztiek, gutxienez, banku-erakunde baten kaudimen ekonomikoaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

3) KAUDIMEN TEKNIKOA EDO PROFESIONALA

Kaudimen teknikoa edo profesional egokia erakutsiko dute honako bitarteko hauen bidez:

1.- Gaitasun teknikoa edo profesionala egiaztatzeko, azken hiru urteetan egindako zerbitzu nagusien zerrenda aurkeztu beharko da, kontratuaren xede diren izaera berekoak edo antzekoak eta egiaztatu beharko da gutxienez azken 3 urteetako batean urteko zenbateko metatua kontratuaren bataz besteko urtekoa edo handiagoa dela, hau da, 36.031,31€ (BEZ gabe), horien zenbatekoa, datak eta hartzaile publikoa edo pribatua adierazita.

Lizitatzaile guztiek EKABen IV. Partea bete beharko dute, ezaugarrien kuadroko 15. puntuan eskatzen den baimena/gaikuntzak eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala dutela adieraziz.

4) SAILKAPENA

Nahitaezko sailkapena: EZ

5) INGURUMENA KUDEATZEKO ETA KALITATEA BERMATZEKO ARAUAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEA

Bai

1.- Hondakinak kudeatzeko jarduerarako baimena, 191208, 191212, 200110 eta/edo 200111 LER kodetarako.

16. BALIABIDEAK NAHITAEZ ATXIKITZEKO KONPROMISOA

Bai. Esleipendunak konpromisoa hartzen du bere eskaintzan konprometitutako baliabide materialak (eta giza baliabideak lehiaketa honen xedea lortzeari atxikitzeko, eta, oro har, lanak behar bezala egiteko behar diren baliabide guztiak.

17. AZPIKONTRATAZIOA

Eskaintzan azpikontratatzeko aurreikusitako kontratuaren zatia adierazteko betebeharra, zenbatekoa eta azpi kontratisten izena edo enpresa-profila adierazita: BAI

Azpi kontratistei ordainketa zuzenak: EZ

Azpikontratatu ezin diren zeregin kritikoak: EZ

18. BERMEAK

Behin-behinekoa: Ez da eskatzen.

Behin betikoa: BAI. Zenbatekoa: zerbitzuaren esleipen-prezioaren %5, BEZik gabe.

Osagarria: EZ da eskatzen

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

19. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

Eskaintzak baloratzeko irizpideak, kontratua esleitzeko oinarri izan behar direnak, honako hauek dira, garrantziaren eta esleitzen zaien haztapenaren arabera handienetik txikienera zerrendatuta:

1. Automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideak, formulak aplikatuz ebaluatu daitezkeenak: 51,00 puntu, gehienez.

1. Proposamen ekonomikoa: **0 eta 51 puntu** artean emango dira.

Proposamen ekonomikoak puntuazio-sistema honen arabera baloratuko dira:

- Ez da onartuko lizitazio-prezioa gainditzen duen proposamenik.
- Gehieneko puntuazioa (51 puntu) eskaintzarik onenari emango zaio. Gainerako eskaintzei puntuak emateko, honako eragiketa egingo da: beherapen-ehunekoaren eta eskaintzarik merkeenaren artean diferentzia aterako da eta ondoren puntuazio hoberenari hori kenduko zaio.
- Ehunen eta lizitazio-prezioarekiko proposamen ekonomiko bakoitzaren ehunekoaren arteko diferentzia proposamenaren “beherapena” izango da:
  100 x (1- proposamena / eskaintza)
- “Beherapen” handiena duen proposamenari “A beherapena” esango diogu eta gehieneko puntuazioa emango zaio, hau da, 51 puntu. Gainerako proposamenak (B) honako formularen arabera haztatuko dira:
  51 –(1,5 x (A beherapena – B beherapena))
  puntuazioa zero (0) izanik, eragiketaren emaitza negatiboa bada.
- Beherapenik eskaintzen ez duen enpresari, hau da, lizitazio prezioa eskaintzen duenari, 0 puntu emango zaizkio.

2. Balio-iritzi baten arabera neurtu beharreko irizpideak: 49 puntu, gehienez.

Irizpide honetan lizitatzaileek kontratuaren xede diren lanen antolamenduari eta prestazioari buruz idatzitako Zerbitzuen Egikaritze Proiektutik (MEMORIA TEKNIKOA) erator daitezkeen kalitatea eta ondorioak hartuko dira kontuan, bai eta proposatutako giza baliabideak eta baliabide materialak ere, zerbitzuaren ahalik eta etekin handiena eta kalitate onena lortzea ahalbidetzen dutenak, 49 puntu gehienez ere.

Balorazio-txostenak xehetasunez aztertuko du irizpide bakoitzari dagozkion elementu edo azpi irizpide baloragarri bakoitza, honako hauen arabera:

1. irizpidea. Arropa eta beste material berrerabilgarri batzuk biltzeko proposatutako edukiontzien ezaugarri teknikoak: 12 puntu, gehienez.

2. irizpidea. Edukiontziak bildu, garbitu eta mantentzeko zerbitzuaren neurriak, prozedura eta justifikazioa: 12 puntu, gehienez.

3. irizpidea. Edukiontziak bildu, garraiatu, garbitu eta mantentzeko zerbitzuetarako proposatutako baliabide materialak eta giza baliabideak: 10 puntu, gehienez.

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

4. irizpidea. Bildutako hondakinak kudeatzea, sailkatzea, garbitzea, berrerabiltzea, birziklatzea, balorizatzea eta ezabatzea: 10 puntu, gehienez.

5. irizpidea. Ezarpen-fasea: 5 puntu, gehienez.

Berdinketak desegiteko irizpideak: SPKL 147 art:

Bi lizitatzaile edo gehiagoren arteko guztirako puntuazioko berdinketak desegiteko, irizpide sozialak dagokien hurrenkerari jarraikiz aplikatuta desegingo da berdinketa, proposamenak aurkezteko epea bukatu ondoren:
a) Zer enpresak duen langile desgaituen edo bazterkeria egoeran dauden langileen ehuneko handiena; berdinketarik egonez gero, lanpostu finkoa duten langile desgaitu gehien edo gizarteratzeko prozesuan dauden langile gehien dituena aukeratuko da.
b) Zer enpresak duen aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.
c) Zer enpresak duen emakume ehunekorik handiena langileen artean.
d) Zozketa, aurreko irizpideen aplikazioak berdinketa desegiteko balio izan ez badute.

20. ARRAZOIZKOA BAINO ESKAINTZA TXIKIAGOAK

Adjudikazio irizpideak eta eskaintza bat anormaltzat jotzen dela identifikatzea ahalbidetzen duten parametro objektiboen aukeraketa:

Desproportzionatutzat edo anormaltzat joko dira hurrengo egoeraren batean aurkitzen diren eskaintzak:

a) Lizitatzailea bakarra izanda, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren azpitik badago 20 unitate portzentualetik gora.
b) Bi lizitatzaile badira, eskaintza bat bestearena baino txikiagoa bada 20 unitate portzentualetik gora.
c) Hiru lizitatzaile edo gehiago badira, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino txikiagoa dena 10 unitate portzentualetik gora. Halere, batezbesteko hori konputatzeko, kendu egingo da aipameneko batezbestekoa baino 10 unitate portzentual gorago dagoen eskaintza.

Nolanahi ere, neurriz kanpokotzat edo anormaltzat joko dira azpikontratazioari buruzko araudia urratzen duten eskaintzak edo ingurumen, gizarte edo lan arloan aplikatu beharreko betebeharrak betetzen ez dituztenak, indarrean dauden sektoreko hitzarmen kolektiboak ez betetzea barne, SPKLren 201 artikuluan ezarritakoa aplikatuz.

Eskaintzak anormaltzat edo desproportzionatutzat jotzeko, kontratazio mahaiak kontuan hartuko du enpresak aurkeztutako eskaintzaren Memoria Justifikatzailea, eta aztertu ahal izango du enpresaren kaudimenaren eta aurkeztutako eskaintzaren artean dagoen erlazioa.

Eskaintza anormaltzat edo desproportzionatutzat jotzen bada, eskaintza justifikatzeko epea 5 egun naturalekoa izango da, errekerimentua jasotzen duenetik kontatzen hasita.

21. GAUZATZE-BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza teknikoen agirian zehazten dira, hala badagokio, Administrazio Klausula Zehatzen agiriko 38.2 artikuluan xedatutakoaz gain.

Kontratuaren esleipendunak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du gauzatze baldintza berezien betetzeari buruzkoa, kontratua formalizatu aurretik.

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

22. AURREIKUSITAKO KONTRATU-ALDAKETAK

Aldaketak: EZ

23. KONTRATUAREN FUNTSEZKO BETEBEHARRAK

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritakoak, eta klausula partikularren pleguan eta karatula honetako 21. klausulan jasotakoak.

24. ZIGORRAK

Administrazio Klausula Zehatzen Agiriko 41. klausularen arabera.

25. ASEGURUAK

Kontratistak erantzukizun zibileko asegurua izango du, kontratua gauzatzearen ondorioz hirugarren pertsonei eta instalazioei eragindako kalte galerengatik sor daitezkeen erantzukizunak bermatuko dituena, 300.000 euroko gutxieneko zenbatekoarekin. Estaldura horrek indarrean jarraitu beharko du kontratuak irauten duen bitartean, luzapenak eta bermealdia barne. Tolosaldeko Mankomunitatea aseguratutzat hartuko da hirugarren baten izaera galdu gabe. Aseguru horietan frankiziak edo kanpoan utzitako arriskuak ezartzen badira, enpresa esleipendunak ordainduko ditu horiei dagozkien kalte ordainak.

Polizak entregatzeko unea: kontratua formalizatu aurretik, beraz, ez da beharrezkoa izango polizak gutun azalean sartzea.

26. SUBROGAZIOA LAN-HARREMAN JAKIN BATZUETAN

Subrogazioa lan-harreman jakin batzuetan: EZ

27. LIZITATZAILEENTZAKO KONPENTSAZIOAREN ZENBATEKOA

EZ

28. PRESTAKETA-LANENGATIKO KONTURAKO ORDAINKETAK

EZ

29. BESTELAKO ZEHAZTAPEN GEHIGARRIAK

Ikusi Baldintza Teknikoen Agiria.

30. KONTRATAZIO-MAHAIA

Mahaiburua: Mankomunitateko lehendakaria edo horren ordezkoa

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

Kideak:	Mankomunitateko idazkari kontu hartzailea
	Mankomunitateko Ingurumen teknikaria
Mahaiko idazkaria:	Mankomunitateko idazkari kontu hartzailea

31. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA

Proposamenak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK

1.- Kontratuaren xedea

2.- Kontratuaren bidez bete beharreko administrazio-beharrak

3.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua

4.- Kontratuaren balio zenbatetsia

5.- Kontratuaren prezioa

6.- Kreditua egotea

7.- Zerbitzua emateko epea eta lekua

8.- Prezioak berrikustea

9.- Kontratatzailearen profila

10.- Gai hauei buruzko informazioa: zergak, ingurumena, emakumeen eta gizonen berdintasuna, hizkuntza-berdintasuna, enpleguaren babesa, lan-baldintzak eta laneko arriskuen prebentzioa eta datuen babesa

11.- Kontratuaren araubide juridikoa eta Administrazioaren eskumenak

12.- Errekurtsoen araubidea

II. KAPITULUA – KONTRATAZIOA

13.- Espediente mota eta lizitazio modua

14.- Pertsona natural edo juridiko lizitatzaileak

15.- Behin-behineko bermea

16.- Proposamenak aurkeztea

17.- Lizitatzaileei informazioa ematea

18.- Proposamenen edukia

19.- LEHENENGO gutun-azal edo artxibo elektronikoa: “DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA”

20.- BIGARREN gutun-azala edo artxibo elektronikoa: “BALIO-IRITZI BIDEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA”

21.- HIRUGARREN gutun-azala edo artxibo elektronikoa: “FORMULAK APLIKATUZ EBALUA DAITEKEEN ESKAINTZA

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA"22.- Aldaeren onargarritasuna

23.- Proposamenak aurkeztearen ondorioak

24.- Kontratazio-mahaia

25.- Proposamenak irekitzea eta aztertzea

26.- Kontratazio mahaiaren egintzen emaitza argitaratzea eta eragindako lizitatzaileei jakinaraztea

27.- Esleipen-irizpideak

28.- Eskaintzak baloratzea

29.- Eskaintzak argitzea

30.- Balio baxuegiak dituzten eskaintzak

31.- Prozedurako ondorengotza

32.- Kontratua ez esleitzeko edo egiteko erabakia eta Administrazioak esleipen-prozeduran atzera egitea

33.- Esleipena

34.- Kontratua formalizatzea

III. KAPITULUA - KONTRATUA GAUZATZEA

35.- Kontratuaren arduraduna

36.- Kontratistaren ondorengotza

37.- Kontratua lagatzea

38.- Gauzatzeko baldintzak eta betebeharrak

39.- Herritarren aldeko zuzeneko prestazioak dakartzaten zerbitzu-kontratuei buruzko berezitasunak

40.- Jabetza intelektualaren eskubideak

41.- Zigorrak: berandutzeagatik eta beste zigor batzuk

43.- Kontratuaren aldaketak

44.- Kontratistari ordaintzea

45.- Kontratua etetea

46.- Harrera eta berme-epea

47.- Kontratua suntsiaraztea

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

ERANSKINAK

I. ERANSKINA.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

I. ERANSKINAREN GEHIGARRIA.- JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK

II. ERANSKINA.- EKAB EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

III. ERANSKINA.- ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA

IV. ERANSKINA.- BALIABIDEAK ATXIKITZEKO KONPROMISOAREN ADIERAZPEN-EREDUA

V. ERANSKINA.- ENPRESA-TALDEARI BURUZKO ADIERAZPENAREN EREDUA

VI. ERANSKINA.- KONFIDENTZIALTZAT JOTZEN DIREN DOKUMENTU ETA DATUEN AITORPEN OSAGARRIAREN EREDUA

VII. ERANSKINA - ABALAREN EREDUA

VIII. ERANSKINA.- ESKAINTZA EKONOMIKOAREN EREDUA ETA FORMULEN BIDEZ EBALUA DAITEZKEEN ESKAINTZAREN BESTE ELEMENTUEN EREDUA

IX. ERANSKINA.- SUBROGAZIO ESKUBIDEA DUTEN LANGILEEN ZERRENDA.

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK

1.- Kontratuaren xedea

1.- Kontratuaren xedea ezaugarrien koadroko 3. atalean deskribatutako zerbitzua da, preskripzio teknikoen agirian ezarritako baldintzen arabera, eta, hala badagokio, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Bigarren Liburuko I. Tituluan aurreikusitako kasuetan izapidetu daitezkeen aldaketen arabera (9/2017 Legea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora).

Paragrafo horretan hala ezartzen denean, loteka lizitatuko da, hor deskribatzen diren termino eta mugen arabera, SPKLren 99. artikuluaren arabera.

2.- Kontratuen Hiztegi Bateratua (CPV) nomenklaturari dagokion kodifikazioa ezaugarrien koadroko **3. atalean** ageri da.

2.- Kontratuaren bidez bete beharreko administrazio-beharrak

Kontratu honen bidez, baldintza teknikoen agirian deskribatzen diren beharrak asetuko dira, hor deskribatutako zerbitzuen bidez.

3.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua

1.- Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa ezaugarrien koadroko **4. atalean** adierazitakoa izango da gehienez, Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne.

2.- SPKLren 100.2 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ezaugarrien koadroko **4. atalean**, hala badagokio, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua zehazteko kontuan hartu diren kostu zuzenak, zeharkakoak eta gainerako gastuak adierazten dira.

4.- Kontratuaren balio zenbatetsia

1.- Kontratuaren balio zenbatetsia, SPKLren 101. artikuluaren arabera kalkulatua eta ezaugarrien koadroko **4. atalean** jasoa, kontuan hartu da bai kontratu honi aplikatu beharreko esleipen-prozedura, bai aplikatu beharreko publizitatea aukeratzeko, bai pertsona fisiko eta juridiko lizitatzaileen (aurrerantzean lizitatzaileak) gaitasun-baldintzak eta aplikatu beharreko errekurtso-araubidea ezartzeko. Balio zenbatetsi horretan sartuko dira, hala aurreikusten bada, behin-behineko edozein aukera, balizko luzapenak eta kontratu-aldaketak, ezaugarri-koadroko **9. eta 22. ataletan** hurrenez hurren adierazitakoak.

2.- SPKLren 101.5 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ezaugarrien koadroko **4. atalean** kontratuaren balio zenbatetsia zehazteko erabilitako metodoa adierazten da.

5.- Kontratuaren prezioa

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

1.- Kontratuaren prezioa esleipenetik ateratzen dena izango da, eta partida independente gisa BEZa adierazi beharko du. Kontratuaren prezioan sartzen dira aplikatzekoak diren zergak, tasak eta kanonak, bai eta agiri honetan jasotako betebeharrak betetzearen ondorioz esleipendunari sortzen zaizkion gastu guztiak ere.

2.- SPKLren 102.4 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ezaugarrien koadroko **4. atalean** prezioa zehazteko erabilitako sistema adierazten da.

3. Prezioa oroharreko prezioaren bidez zehazten den kontratuetan, kontratuaren prezioa enpresa esleipendunak eskainitakoa izango da, eta ezin izango du inola ere lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditu.

4.- Kontratuetan prezioa prestazioaren osagai edo unitateei dagozkien unitate-prezioen bidez zehazten bada:

a) Xedea osatzen duten unitateen kopurua zehaztasunez zehazten denean: esleipendunak eskainitako unitate-prezioa unitate-kopuruaz biderkatzearen emaitza izango da prezioa.
b) Xedea osatzen duten unitateen kopurua zehaztasunez zehazten ez denean:

- Unitate bakoitzaren prezioa esleipendunak eskainitakoa izango da.
- Kontratuaren gehieneko aurrekontu mugatzailea ezarriko da, nahiz eta aurrekontu honen benetako gastua Administrazioaren benetako premiek baldintzatzen duten, ez baitago behartuta unitate kopuru jakin bat eskatzera, ezta osorik gastatzera ere.

5.- Ezaugarrien koadroko **4. atalean** hala adierazten bada, eskaintza ekonomikoak onartuko dira, baldin eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuan agertzen diren prezio unitario partzialak baino ehuneko handiagoa badute; dena den, ateratzen den gehieneko prezioak ezin izango du inola ere gainditu oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa.

6.- Kreditua egotea

1.- Egin beharreko kontratuaren gehieneko gastu zenbatetsiari aurre egiteko kreditu egokia eta nahikoa dago. Kontratua aurrekontu-sailaren/-sailen kargura finantzatuko da, ezaugarrien koadroko **7. atalean** ezarritako urterokoaren/urterokoen arabera.

2.- Ezaugarri-koadroaren hasieran aurreikusitakoarekin bat etorriz, SPKLren 117.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, espedientea aldez aurretik izapidetzen bada, kontratuaren esleipena eteteko baldintza izango da dagokion ekitaldian kontratutik eratorritako betebeharrak bermatzeko kreditu egokia eta nahikoa egotea.

***7*.- Zerbitzua emateko epea eta lekua**

1.- Gauzatze-epea ezaugarrien koadroko **8. atalean** agertzen dena izango da, edo enpresa esleipendunak eskaintzen duena, baldin eta lizitatzaileek epe osoa eta/edo epe partzialak murriztea proposa badezakete.

2.- Kontratua luzatu ahal izango da, baldin eta hala aurreikusten bada ezaugarrien koadroko **9. atalean**, eta kontratistak nahitaez luzatu beharko du, SPKLren 29. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.- Zerbitzuak leku jakin batean garatu behar badira, ezaugarrien koadroko **12. atalean** adieraziko da.

8.- Prezioak berrikustea

1.- Berraztertu behar bada, ezaugarrien koadroko **14. atalean** adieraziko da zer formula aplikatu behar den. 2.- Prezioak SPKLn (103. artikulua eta hurrengoak) ezarritakoaren arabera berrikusiko dira.

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

9.- Kontratatzailearen profila

1.- Kontratu-egilearen profilaren bidez argitaratuko den kontratu honi buruzko informazioa kontsultatu ahal izango da ezaugarrien koadroko **2. atalean** adierazten den helbide elektronikoan.

2.- Administrazio publikoen kontratuak esleitzeko lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

3.- Kontratatzailearen profilean kontratuaren lizitazioaren deialdiari buruzko informazioa emango da, administrazio-klausula zehatzen agiriak eta dokumentazio osagarria barne, hala badagokio.

4.- Kontratuek erregulazio harmonizatua dutenean, lizitazioa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da, SPKLren 135. artikuluarekin bat etorriz.

10.- Gai hauei buruzko informazioa: zergak, ingurumena, emakumeen eta gizonen berdintasuna, hizkuntza-berdintasuna, enpleguaren babesa, lan-baldintzak eta laneko arriskuen prebentzioa eta datuen babesa

Erakunde hauetan, gai hauei buruz indarrean dauden betebehar eta xedapenei buruzko informazioa lor daiteke:

- Fiskalitatea: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saila eta gainerako zerga-administrazioak.
- Enpleguaren babesa, lan-baldintzak eta laneko arriskuen prebentzioa eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta lan-munduan txertatzea: Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza.
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna: EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Institutua erakunde autonomoa.
- Hizkuntza-berdintasuna: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.
- Ingurumenaren babesa: IHOBE sozietate publikoa.
- Datu pertsonalen babesa: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.

11.- Kontratuaren araubide juridikoa eta Administrazioaren eskumenak

1.- Kontratu hau administratiboa da, SPKLren 25. artikuluan xedatutakoaren arabera. Alderdiek berariaz bete beharko dute agiri honetan eta dagokion proiektuan ezarritakoa.

2.- Administrazio-klausula zehatzen agiria eta baldintza tekniko zehatzen agiria kontratu-izaera dute, eta, beraz, esleipendunak sinatu beharko ditu, ados daudela adierazteko, kontratua formalizatzeko egintzan bertan.

3.- Baldintza-agirietan aurreikusi ez denerako, kontratua arautuko dute SPKLk, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuak (817/2009 ED) eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartutako Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak (HAKLEO). Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapenek arautuko dute (3/2016 Legea, apirilaren 7koa, zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzeko Legea), aplikagarriak badira. SPKLren xedapen indargabetzaileak eragiten ez dion guztiari dagokionez aplikatuko dira arau horiek.

4.- Nolanahi ere, lehen aipatutako legezko eta erregelamenduzko arauak SPKLren aurka ez doan guztian aplikatuko dira.

5.- Horien ordez, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatukoak.

6.- Baldintza-agiri hau eta gainerako kontratu-dokumentuak bat ez badatoz, baldintza-agiri honek izango du lehentasuna.

7.- Kontratuko klausulak, klausula horiek osatzen dituzten gainerako kontratu-agiriak eta hitzartutakoa gauzatzean aplikatu beharreko jarraibide edo arauak ez ezagutzeak ez du esleipenduna klausula horiek betetzeko betebeharretik salbuesten.

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

8.- SPKLren 190. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontratazio-organoak administrazio-kontratuak interpretatzeko eta horiek betetzeak sor ditzakeen zalantzak ebazteko eskumena du. Era berean, egindako kontratuak alde bakarrez aldatu eta suntsiaraztea erabaki ahal izango du, SPKLn eta hura garatzeko xedapenetan ezarritako mugen barruan eta adierazitako baldintza eta ondorioekin.

9.- Kontratua aplikatzeko edo interpretatzeko, gauzatzeko, aldatzeko, betetzeko edo suntsiarazteko sor daitezkeen auziak ebatzi egingo dira, kontratistari entzun ondoren, SPKLren 191. artikuluan eta HAKLEOren 97. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.

10.- Interesdun batek eskatuta hasitako prozeduretan, berariaz besterik ezartzen ez bada, eta prozedura horien xedea edo gaia kopuruak erreklamatzea, administrazio-eskumenak baliatzea edo administrazio-kontratu bat gauzatzeari, burutzeari edo azkentzeari buruzko beste edozein gai bada, ebazpena emateko aurreikusitako epea amaitu eta ebazpena jakinarazi ez bada, interesdunak ezetsitzat jo ahal izango du eskaera administrazio-isiltasunez, nahiz eta bere horretan iraungo duen hura ebazteko betebeharrak.

12.- Errekurtsoen araubidea

1.- Baldintza-agiri honen eta baldintza teknikoen agiriaren aurka errekurtsoa jarri ahal izango da, nahi izanez gero, SPKLren 44. artikuluan aurreikusitako errekurtso bereziaren bidez, baldin eta 100.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duen kontratua bada.

2.- Hauek ere errekurritu ahal izango dira:

a) Lizitazio-iragarkiak eta kontratazioa arautu behar duten baldintzak ezartzen dituzten gainerako kontratu-agiriak.

b) Esleipen-prozeduran onartutako izapide-egintzak, baldin eta horiek esleipenari buruz zuzenean edo zeharka erabakitzen badute, prozedurak aurrera egitea eragozten badute edo defentsa-gabezia edo eskubide edo interes legitimoei kalte konponezina eragiten badiete. Nolanahi ere, kontratazio-mahaiaren edo -organoaren egintzetan aurreko baldintzak betetzen direla ulertuko da, baldin eta egintza horien bidez erabakitzen bada hautagaiak edo lizitatzaileak onartzea edo ez onartzea, edo eskaintzak onartzea edo baztertzea, SPKLren 149. artikulua aplikatzearen ondorioz ezohiko moduan baxuak izateagatik baztertutako eskaintzak barne.

c) Esleipen-erabakiak.

d) SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzean oinarritutako aldaketak, aldaketa beste esleipen baten xede izan behar zela iritzita.

SPKLren 51. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, errekurtsoa kontratazio-organoaren erregistroan, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Auzitegian edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako tokietan aurkeztu beharko da, 15 egun balioduneko epean, SPKLren 50.1 artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, errekurtsoa SPKLren 39. artikuluko 2. ataleko c), d), e) edo f) letretan aurreikusitako deuseztasun-arrazoiren batean oinarritzen bada, SPKLren 50.2 artikuluan aurreikusitako errekurtsoa jartzeko epeak hartuko dira kontuan.

Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako moduan.

3.- Gainerako kontratuetan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean edo sektore publikoaren araubide juridikoari buruz indarrean dagoen araudian eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen Legean aurreikusitako errekurtso arruntak aurkeztu ahal izango dira.

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

II. KAPITULUA – KONTRATAZIOA

13.- Espediente mota eta lizitazio modua

1.- Kontratazio-espedientea ezaugarrien koadroko **5. atalean** aurreikusitako prozeduraren eta izapidearen bidez egiten da.

Aldaerak onartuz gero, lizitatzaileek beste aukera batzuk eskaini ahal izango dituzte, ezaugarri-koadroko **13. atalean** ezarritako moduan, eta baldintza tekniko zehatzen agirian finkatutako eta atal horretan laburbildutako betekizun, modalitate eta ezaugarri teknikoekin.

2.- Espedientea presaz izapidetzeak berekin ekarriko du lizitatzeko eta esleitzeko ezarritako epeak murriztea, SPKLren 119. artikuluan eta horrekin bat datozenetan ezarritako arauen arabera.

14.- Pertsona natural edo juridiko lizitatzaileak

1.- Administrazioarekin kontratatu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko edo juridiko espainiar edo atzerritarrek, baldin eta kontratatzeko debekurik ez badute eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute.

Aplikatzekoa den araudiak horrela zehazten duelako, lizitatzaileari baldintza jakin batzuk eskatzen bazaizkio antolaketari, irabazien xedeari, finantzaketa-sistemari edo bestelakoei buruz dagokion esleipen-prozeduran parte hartu ahal izateko, baldintza horiek egiaztatu beharko ditu prozeduran parte hartzean.

2.- Proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunean, lizitatzaileek ezin izango dute egon SPKLren 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuen ezein kausatan. Kontratua esleitzen denean ere ez dute egoera horretan egon beharko.

3.- Lizitatzaileek, halaber, kontratuaren xede diren prestazioak emateko eska daitekeen enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute.

4.- Pertsona juridikoei ez zaie kontraturik esleituko, baldin eta estatutuen edo sorrerako arauen arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo jarduera-esparrua kontratuaren prestazioekin bat ez badatoz.

5.- Administrazioak, halaber, aldi baterako eratzen diren enpresa-elkarteak kontratatu ahal izango ditu, eta ez da beharrezkoa izango horiek eskritura publikoan formalizatzea, harik eta kontratua haren alde esleitu arte.

Aldi baterako enpresa-elkarteei dagokienez, haien osaera aldatuz gero, bai eta kontratua formalizatu aurretik eta ondoren gertatzen diren aldaketen kasuan ere, SPKLren 69. artikuluko 8. atalean eta hurrengoetan xedatutakoa beteko da. Ondorio horietarako, gertatutakoaren berri eman beharko zaio kontratazio-organoari.

6.- Europako Erkidegoko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresei eta Erkidegoz kanpoko enpresei dagokienez, SPKLren 67. eta 68. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

15.- Behin-behineko bermea

1.- SPKLren 106. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, salbuespenez, interes publikoko arrazoiengatik eta espedientean justifikatuta, kontratu honetarako behin-behineko berme bat eratzea eskatzen bada, zenbatekoa ezaugarrien koadroko **18. atalean** agertzen dena izango da.

2.- Bermeen forma eta betekizunei dagokienez, SPKLren 106. eta 108. artikuluetan eta HAKLEOren 55., 56., 57. eta 58.

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

artikuluetan xedatutakoa beteko da.

3.- Behin-behineko bermea automatikoki iraungiko da, eta kontratua burutu eta berehala itzuliko zaie lizitatzaileei.

16.- Proposamenak aurkeztea

1.- Proposamenak lizitazio elektronikoko www.contratacion.euskadi.eus plataformaren bidez aurkeztuko dira, kontratatzailearen profilean eta Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (EBAO) argitaratutako lizitazio-iragarkian adierazitako epean, erregulazio harmonizatuko kontratuetarako.

2.- Dokumentazioa bidaltzean, eta jakinarazpen eta komunikazioetan, baldintza-agiri honen **I. eranskinean** ezarritakoa bete beharko da.

3.- Dokumentuak izendatzeko unean kontuan hartuko dira baldintza-agiri honetako **19, 20. eta 21. klausuletan** adierazitako atalak, horietan adierazten baita LEHENENGO, BIGARREN eta HIRUGARREN gutun-azaletan edo artxibo elektronikoetan sartu beharreko dokumentu-edukia.

4.- Proposamenak ezkutukoak izango dira, eta eskaintza publikoaren unera arte ezkutukoak izango direla bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira.

Prozedura irekietarako proposamenak aurkezteko epea **15 egun naturalekoa** izango da, lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Iragarkiak SPKLren III. eranskinean jasotako informazioa izango du.

Erregulazio harmonizatuko kontratuetan, eskaintzak aurkezteko epea 35 egunekoa izango da, eta 5 egunez murriztuko da eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez jasotzen badira; 30 egunekoa izango da azken epea.

17.- Lizitatzaileei informazioa ematea

1.- SPKLren 138.3 artikuluan aipatzen den informazio gehigarria edo osagarria eman behar denean, administrazio kontratatzaileak eskaintzak aurkezteko ezarritako epemuga baino 6 egun natural lehenago eman beharko du informazio hori, gehienez ere, baldin eta eskaera egun hori baino gutxienez 12 egun natural lehenago aurkezten bada. Eskaera hori lizitazio-iragarkian eta ezaugarrien koadroko **1. atalean** aurreikusitako helbide elektronikora egingo da.

2.- Premiazkotzat jo diren espedienteetan, epea 4 egun naturalekoa izango da, beranduenez, erregulazio harmonizatuko kontratuetarako eskaintzak aurkezteko ezarritako epea amaitu baino lehen.

3.- Baldintza-agiriei edo gainerako agiriei buruz eskatutako argibideak dagokion kontratatzaile-profilean argitaratzen badira, erantzunak lotesleak izango dira.

18.- Proposamenen edukia

1. – Lizitatzaileak edo haren ordezkariak hurrengo klausuletan adierazten diren gutun-azal edo artxibo elektronikoetan aurkeztuko ditu proposamenak.

2.- Gutun-azal edo artxibo elektroniko bakoitzaren barruan, aparteko orri edo fitxategi batean jasoko da haren edukia, zenbakiz adierazita (HAKLEO, 80.1 artikulua).

19.- LEHENENGO gutun-azal edo artxibo elektronikoa: "DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA"

1.- "DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA" izeneko gutun-azal edo artxibo elektroniko honetan, ondoren zerrendatzen diren dokumentuak sartu beharko dira, bai eta horiek guztiak zerrendatzeko aurkibide bat ere.

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

a) **Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB).** SPKLren 140. eta 141. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, **II. eranskinean** jasotako jarraibideen arabera bete beharreko erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatua, han adierazitako inprimaki-ereduari egokitua.

Enpresa lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimena eta baliabideak erabiltzen baditu, EKAB bat aurkeztu beharko du horietako bakoitzeko.

Ezaugarrien koadroan kontratuaren xedea loteka banatzea aurreikusten bada, eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren edo tekniko eta profesionalaren baldintzak lote batetik bestera aldatzen badira, EKAB bat aurkeztuko da kaudimen-baldintza berberak aplikatzen zaizkion lote edo lote-multzo bakoitzeko.

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren eta teknikoaren eta profesionalen (ezaugarrien kuadroko 15.2 eta 3) baldintzak eta Ingurumena kudeatzeko eta kalitatea bermatzeko arauak betetzen direla (ezaugarrien kuadroko 15.5) betetzen dituztela adierazi beharko dute, EKABaren IV partea betez.

b) **Aldi Baterako Enpresaburuen Elkartea eratzeko konpromisoa, hala badagokio.** Bi enpresa edo gehiago lizitazio batera aurkezten direnean aldi baterako elkartea osaturik, dokumentu pribatua aurkeztu beharko dute, horretan adierazita elkartearen kide diren enpresen izenak eta nondik norakoak eta bakoitzaren partaidetza. Konpromisoa adierazi beharko dute, era berean, esleipendun gertatuz gero formalki aldi baterako elkarte gisa eratzeko (SPKLren 69. artikulua eta HAKLEOren 24. artikulua). Agiri hori elkartea osatzen duen enpresetako bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute. Kasu horietan, enpresa bakoitzak bere EKABa aurkeztu beharko du. Baldintza-agiri honetako **III. eranskinean** jasotzen da Aldi Baterako Enpresari Elkartea eratzeko konpromisoaren eredua.

c) Ezaugarrien koadroko **16. atalean** adierazten diren profil eta zehaztapenak dituzten **baliabide pertsonalak eta materialak kontratuaren betearazpenari atxikitzeko erantzukizunpeko adierazpena**. Agiri honen **IV. eranskinean** eredua erantsi da.

d) Erantzukizunpeko aitorpena, zeinen bidez enpresa lizitatzaileak olioa biokarburanteak ekoizteko baimenduta dauden enpresa kudeatzaileei saltzeko konpromisoa (petrolio inportazioa murrizteko eta energia jasangarritasuna sustatzeko) bere gain hartzen baitu, horien izena adieraziz.

e) Erantzukizunpeko aitorpena, zeinen bitartez enpresa lizitatzaileak bildutako olioaren azkeneko helburua eta birziklapena egingo dela egiaztatzeko eta jasoketen gaineko beharrezkoak diren kudeaketa datuak emateko konpromisoak hartzen dituen, eta hondakinen behin betiko amaieraz erantzukizun esklusiboa bere gain hartzen duen.

f) **Enpresa lizitatzailearen berariazko erantzukizunpeko adierazpena, zein enpresa-taldetakoa den adierazten duena** eta talde bereko sozietate guztiak jasotzen dituena, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera. Adierazpen hori aurkeztu beharko da, baldin eta ezaugarrien koadroko **19. atalean** proposamen bati baxuegi irizteko parametroak ezartzen badira. Enpresa ez bada inongo enpresa-taldetakoa, hori azalduz egingo da adierazpena. Baldintza-agiri honetako **V. Eranskinean** eredua erantsi da.

g) **Lizitatzaileen dokumentu eta datu konfidentzialei buruzko adierazpena.** Enpresa lizitatzaileek adierazi beharko dute, hala badagokio, zer agiri administratibo eta tekniko eta datu diren konfidentzialtzat jotzeko modukoak. Hori, gainera, argi adierazi beharko da (gainean inprimatuta, marjinan edo beste edozein modutan) halakotzat adierazitako dokumentuan bertan. Enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentuak eta datuak konfidentzialtzat jo daitezke, baldin eta hirugarren pertsonei edo erakundeei zabaltzea haien interes komertzial legitimoen aurkakoa bada edo enpresen arteko lehia leialari kalte egiten badio. Adierazpen hori aurkezten ez bada, ulertuko da ezein dokumentu edo datu ez dela izaera horretakoa. Baldintza-agiri honen **VI. eranskinean** eredua erantsi da.

h) **Behin behineko bermea jarri izanaren egiaztagiria, hala badagokio.** Behin-behineko bermea eskatzen

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

bada, honela gordailutuko da:

- Tolosaldeko Mankomunitatearen banku kontuan, eskudiruzko bermeak direnean, eta, orduan, gordailua egiaztatzen duen frogagiria sartu beharko da.
- Kontratazio-organoaren aurrean, idatzitako balioak, abalak edo kauzio-aseguruaren ziurtagiriak inmobilizatu izanaren ziurtagiriak direnean (ikus abalaren eredua **VII. eranskinean**).

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, parte hartzen duen enpresa batek edo batzuek eratu ahal izango dituzte behin-behineko bermeak, betiere, oro har, ezaugarrien koadroko **18. atalean** eskatutako zenbatekora iristen bada eta aldi baterako elkarteko kide guztiak modu solidarioan bermatzen baditu.

i) **Atzerriko lizitatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioaren berezitasunak.** Atzerriko lizitatzaileek, aurreko a) letran aipatzen den erantzukizunpeko adierazpenaz gain, jarraian zehazten den dokumentazio espezifikoa aurkeztu beharko dute.

Espainiakoak ez diren enpresa guztiek aurkeztu beharrekoa:

- Kontratutik zuzenean edo zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako **Espainiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla adierazten duen adierazpena**, eta, hala badagokio, lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diotela adierazten duena (SPKLren 140.1 f) artikulua).

Europar Batasuneko kide ez diren edo Europako Esparru Bakarrari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresek, gainera, honako hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- Enpresaren egoitza dagoen tokiko Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrak edo Bulego Kontsularrak egindako **txostena**, non jasoko baita, enpresak aldez aurretik egiaztatuta, tokiko erregistro profesionalean, komertzialean edo antzekoetan inskribatuta dagoela, edo, halakorik ezean, ohiko moduan jarduten duela tokiko trafikoan, kontratuaren xedeak barne hartzen dituen jardueren esparruan.

- **Elkarrekikotasun-txostena,** SPKLren 68. artikuluan aipatzen dena, erregulazio harmonizatuko kontratuak direnean izan ezik; kasu horretan, Munduko Merkataritza Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duen estatuaren izaerari buruzko Ekonomia Ministerioaren Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Nagusiaren edo Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorraren txosten batekin ordezkatuko da.

2.- Kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak edozein unetan eskatu ahal izango du agiri bidez egiazta dadila lizitatzaileek erantzukizunez azaldu dituzten baldintzak betetzen direla.

Lizitatzaileak 10 egun balioduneko epean aurkeztu beharko du eskatutako dokumentazioa, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Errekerimendua adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzaileak bere eskaintza baztertu duela ulertuko da, eta prozeduratik kanpo utziko da.

20.- BIGARREN gutun-azala edo artxibo elektronikoa: "BALIO-IRITZI BIDEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA"

1.- Ezaugarrien koadroko **19. atalean** balio-iritzi bidez hautematen diren eta aldez aurretik ebaluatu behar diren esleipen-irizpideak sartu badira, lizitatzaileak BIGARREN gutun-azal edo artxibo elektroniko bat aurkeztu beharko du, "BALIO-IRITZI BIDEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA" izenekoa, han eskatutako dokumentazioa jasotzen duena (MEMORIA TEKNIKOA).

2.- Inolaz ere ez dira sartuko gutun-azal edo artxibo elektroniko honetan HIRUGARREN gutun-azal edo artxibo

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

elektronikoko dokumentuak.

21.- HIRUGARREN gutun-azala edo artxibo elektronikoa: "FORMULAK APLIKATUZ EBALUA DAITEKEEN ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA"

1.- "FORMULAK APLIKATUZ EBALUA DAITEKEEN ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA" izeneko gutun-azal edo artxibo elektroniko honetan, formulak aplikatuz ebaluatu beharreko eskaintza ekonomikoa eta gainerako dokumentuak sartu beharko dira.

2.- Proposamenak **VIII. eranskineko** ereduaren araberakoak izango dira, eta ez dira onartuko Administrazioak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi eta garbi ezagutzea eragozten duten omisio, akats edo zirriborroak dituztenak. Lizitatzaileen eskaintza ekonomikoek, partida independente gisa, jasanarazi beharreko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa adierazi beharko dute.

Bai eskaintza ekonomikoa bai gutun-azal edo artxibo elektroniko honetan jasotako gainerako dokumentazioa ezaugarrien koadroko **19. atalean** adierazitako irizpideen arabera ebaluatuko dira.

VIII. eranskinaz gain 3. Artxibo elektronikoan ondorengo agiriak erantsiko dira:

- Memoria ekonomiko eta finantzarioa
- Prezio unitarioen zerrenda

3.- Proposamenen batek lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, ezarritako eredua nabarmen aldatzen badu, edo proposamenaren zenbatekoan akats nabarmena eragiten badu, edo enpresa lizitatzaileak onartzen badu akatsak dituela edo funtsik ez duela eta bideraezina dela, kontratazio-mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu bidez. Aitzitik, ereduko hitz batzuk aldatzea edo ez betetzea, batak edo besteak bere zentzua aldatzen ez badu, ez da nahikoa arrazoi izango proposizioa baztertzeko.

4.- Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du, hargatik eragotzi gabe SPKLren 142. artikuluan aldaerak onartzeari buruz xedatutakoa. Era berean, ezin izango du beste enpresa batzuekin aldi baterako elkartean proposamenik izenpetu, baldin eta banaka egin badu edo aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan agertzen bada. Printzipio hori urratuz gero, aldi berean aurkeztutako eskaintza guztiak ezetsiko dira.

5.- Proposamena enpresa-talde batek egiten badu, enpresa-talde horretako kide guztiek sinatu beharko dute proposamena, zuzenean edo ordezkari baten bidez.

6.- Ezaugarrien koadroko **13. atalak** aldaerak aurkezteko baimena ematen duenean, oinarriari dagokion eskaintza ekonomikoaz gain, artxibo horretan aldaera bakoitzeko eskaintza ekonomiko bat sartu ahal izango da. Aldaera bakoitzari dagokion eskaintza ekonomikoa ere agiri honen **VIII. eranskineko** ereduaren arabera egingo da, eta atal horretan adierazitako kontzeptuak eta baldintzak jasoko ditu.

22.- Aldaeren onargarritasuna

1.- Aldaerak onartuz gero, lizitatzaile bakoitzak aurkezten duen proposamen bakarrak egoki iritzitako irtenbide guztiak jaso ahal izango ditu kontratuaren xedeari dagokionez, baldintza tekniko zehatzen agirian ezarritako betekizun, modalitate eta ezaugarri teknikoekin (ezaugarrien koadroko **13. atalean** laburbilduta). Aldaerak ezaugarrien koadroko atal honetan bertan ezarritako moduan aurkeztuko dira, eta ezin izango dute kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditu.

2.- Nolanahi ere, enpresa lizitatzaileek nahitaez egin beharko dute eskatutako oinarrizko zerbitzuari soilik eta hitzez hitz aipatutako proposamen bat, prestazioa gauzatzeko epea eta prezioa, bi kasuetan, baldintza-agiri honen hasieran agertzen den "ezaugarrien koadroan" jasotakoen berdinak edo txikiagoak izango dira, eta zehatz-mehatz bat etorri beharko dute aurkezten duten lan-programan jasotakoekin.

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

23.- Proposamenak aurkeztearen ondorioak

1.- Proposamenak aurkezteak berekin dakar enpresa lizitatzaileak baldintza-agiri honetako eta baldintza teknikoen agiriko klausulak baldintzarik gabe onartzea, salbuespenik edo erreserbarik gabe, eta baimena ematea kontratazio-mahaiari eta -organoari Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

Baldintza-agiriak ez onartzeak eskaintza atzera botatzea ekarriko du, ezinbestean.

2.- Lizitatzaileek ezin izango dute beren proposamena kendu 15 egun naturaleko epean, proposamenak irekitzen direnetik zenbatzen hasita, esleipenduna hautatzeko irizpide bakarra prezioa denean, edo bi hilabeteko epean, kontratua esleitzeko beste irizpide batzuk kontuan hartu direnean, SPKLren 158.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Epe hori 15 egun baliodunez luzatuko da SPKLren 149. artikuluan aipatutako izapideak bete behar direnean, eskaintza baxuegiei dagokienez.

3.- Proposamen bat bidegabe kentzen bada, eta tartean doloa, errua edo zabarkeria badago, lizitatzaileak ezin izango du kontratatu Administrazio Publikoekin, SPKLren 71.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta, aldi berean, behin-behineko bermea konfiskatuko da, SPKLren 106.1 artikuluaren arabera, hori eskatu bada.

24.- Kontratazio-mahaia

1.- Kontratazio-mahaia izango da eskaintzak baloratzeko organo tekniko eskuduna, eta SPKLren 326. artikuluan aurreikusitakoaren arabera jardungo du, eta maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21. eta 22. artikuluetan ezarritakoaren arabera, artikulu horien osaera eta eginkizunak garatzen baititu.

2.- Osaera ezaugarrien koadroko **30. atalean** dago jasota, eta kontratatzailearen profilaren bidez argitaratuko da, lizitazio-iragarkiarekin batera, edo, bestela, eratu aurretik, profil horretako berariazko iragarki baten bidez.

3.- Justifikatutako edozein arrazoirengatik kargua hutsik badago, gaixorik badago edo kanpoan bada, ordezkapen-araubide hau ezartzen da kontratazio-mahaiko kideentzat:

- Mahaiburua: kide iraunkorrek ordezkatuko dute titularra, baldintza-agiri honetako ezaugarrien koadroan edo, hala badagokio, kontratatzailearen profilean adierazitako hurrenkeran.
- Kideak: oro har, titularrak atxikita dauden kudeaketa-zerbitzu edo -unitateei atxikitako funtzionarioek ordezkatuko dituzte, edo, bestela, haien mendeko zuzendaritzako beste zerbitzu batzuei atxikitako funtzionarioek, eta mahaiburuak izendatuko ditu.
- Idazkari Kontu-hartzailetza zerbitzura atxikitako kidearen kasuan, sailari atxikitako funtzionario batek ordezkatuko du, eta mahaiburuak izendatuko du.

25.- Proposamenak irekitzea eta aztertzea

25.1.- LEHENENGO gutun-azalak edo artxibo elektronikoak zabaltzea eta dokumentazio administratiboa kalifikatzea.

1.- Proposamenak aurkezteko epea amaituta, kontratazio-mahaiak ireki eta kalifikatu egingo ditu lizitatzaileek garaiz eta behar bezala LEHENENGO gutun-azal edo artxibo elektronikoan aurkeztutako administrazio-agiriak. Mahaiak akats edo omisio konpongarririk ikusten baditu aurkeztutako dokumentazioan, interesdunei jakinaraziko die, eta gehienez ere 3 egun naturaleko epea emango die horiek zuzentzeko edo konpontzeko. Era berean, mahaiak lizitatzaileei eskatu ahal izango die aurkeztutakoaren dokumentazio osagarria edo argigarria aurkez dezatela, eta 5 egun naturaleko epea emango die hori aurkezteko.

2.- Interesdunei bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko zaie.

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

3.- Azkenik, kontratazio-mahaiak zehaztuko du zein lizitatzaile onartu diren lizitazioan, zein baztertu diren eta zergatik baztertu diren.

25.2.- BIGARREN gutun-azalak edo artxibo elektronikoak irekitzea eta aztertzea (soilik BIGARREN gutun-azala edo artxibo elektronikoa dagoenean)

1.- Aurkeztea nahitaezkoa bada, "BALIO-IRITZI BIDEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA" gisa identifikatutako BIGARREN gutun-azalak edo artxibo elektronikoak irekiko dira, edukia ezaugarrien koadroko **19. atalean** adierazitako irizpideen arabera ebaluatzeko.

2.- Egintza horri hasiera emateko, berariazko erabakia hartuko da mahaiak egindako proposamenen kalifikazioari buruz. Kalifikazio horretan, lizitaziorako onartutakoak, baztertutakoak eta baztertzeko arrazoiak identifikatuko dira.

3.- Ezaugarrien koadroko **19. atalean** adierazitako ezaugarri formalak betetzen ez dituzten eskaintzak aurkezten dituzten enpresei eskaintza formalki zuzentzeko eskatuko zaie, eskaintzaren eduki materiala aldatu gabe. Errekerimendu horri erantzuten ez bazaio, prozeduratik kanpo geratuko dira.

4.- Lizitazio-prozeduratik kanpo geratuko dira eskatutako baldintza teknikoak betetzen ez dituzten lizitatzaileak eta formulak aplikatuz ebaluatu beharreko BIGARREN gutun-azaletan edo artxibo elektronikoetan jasotzen dituztenak (HIRUGARREN gutun-azala edo artxibo elektronikoa).

25.3.- HIRUGARREN gutun-azalak edo artxibo elektronikoak irekitzea eta aztertzea

1.- Ekitaldi publikoan irekiko dira HIRUGARREN gutun-azalak edo artxibo elektronikoak, eta, kontratatzailearen profilean adierazten bada deialdian, zuzenean jarraitu ahal izango da, deialdi horretan adierazten den estekaren bidez.

2.- HIRUGARREN gutun-azalak edo artxibo elektronikoak jendaurrean irekitzeko, BIGARREN gutun-azalik edo artxibo elektronikorik ez dagoenean, mahaiak egindako proposamenen kalifikazioari buruzko berariazko erabakia hartuko da, lizitaziorako onartutakoak, baztertutakoak eta baztertzeko arrazoiak identifikatzeko.

3.- Balio-iritzi bidez ebaluatu beharreko irizpiderik badago, egintza honetan jakinaraziko da emaitza.

4.- Ondoren, kontratazio-mahaiak HIRUGARREN gutun-azalak edo artxibo elektronikoak irekiko ditu, "FORMULAK APLIKATUZ EBALUA DAITEKEEN ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA" izenekoak, eta eskaintza ekonomikoak irakurriko ditu.

5.- Gutun-azal edo artxibo elektroniko horietan jasotako dokumentazioa ezaugarrien koadroko **19. atalean** adierazitako irizpideen arabera ebaluatuko da.

6.- Nolanahi ere, irizpide horiek BIGARREN gutun-azaletan edo artxibo elektronikoetan jasotako dokumentazioa baloratu ondoren ebaluatuko dira beti.

25.4.- Kontratazio-mahaiaren aktak

Aurreko atalen arabera egindako guztia aktetan jasoko da, eta akta horietan prozeduraren emaitza eta gorabeherak jasoko dira.

26.- Kontratazio mahaiaren egintzen emaitza argitaratzea eta eragindako lizitatzaileei jakinaraztea

1.- Eskaintzen kalifikazio, onarpen edo baztertzea kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Argitaratze horretatik kanpo geratuko da indarrean dagoen legediaren arabera argitaratu ezin den informazioa. Dena den, kasuan-kasuan bidezko diren komunikazio edo jakinarazpenak zuzenduko zaizkie lizitatzaileei.

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

2.- Lizitatzaile bat baztertzeko egintza, egintza publiko berean jakinarazi ahal izango zaio lizitatzaileari, ahal bada enpresa ordezkatzen duena bertan dagoelako edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerako prozeduren arabera.

27.- Esleipen-irizpideak

1.- Lizitazio-iragarkian eta ezaugarrien koadroko **19. atalean** ezarritakoak izango dira kontuan hartu beharreko irizpideak, bai eta kontratua esleitzeko haztapena ere, bai oinarrizko eskaintzari, bai aldaerei edo hobekuntzei aplikatzeko.

2.- Ez dira inola ere prozeduratik kanpo utziko formula aritmetikoak aplikatuz baloratzen ez diren esleipen-irizpideekin lotutako atal bakoitzerako agiri honetan ezarritako gehieneko hedadura (azalak eta indizeak kontuan hartu gabe) gainditzen duten dokumentuak. Adierazitako gehieneko hedadura gainditzen bada, haren edukia baloratuko da baimendutako gehieneko orri-kopururaino.

3.- Enpresa lizitatzaileren batek formula aritmetikoak aplikatuz baloratzen ez diren esleipen-irizpideei buruzko dokumentazioa aurkezten ez badu, enpresa horren proposamena ez da baloratuko kasuan kasuko irizpideari dagokionez. Proposamenak ez dira inola ere esleipen-prozeduratik kanpo geratuko arrazoi horrengatik.

4.- Era berean, esleipen-irizpide horiekin zerikusia duten testu idatzien paperaren tamainari, marjinei, letra-motari eta lerroartekoari dagokienez (grafikoak, argazkiak, diagramak eta abar alde batera utzita) agiri honen karatulan ezarritako parametroetako edozein –aurrez zuzentzeko errekerimendua egin ondoren– kontuan hartu gabe aurkeztutako proposamen guztiak ez dira baloratuko kasuan kasuko irizpideari dagokionez, baina ez betetzeak ez du ekarriko, inola ere, esleipen-prozeduratik kanpo geratzea.

28.- Eskaintzak baloratzea

1.- Mahaiak, bere eginkizunak betetzeko, beharrezkotzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu, SPKLren 146.2.b) artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

2.- Eskatutako baldintza teknikoak betetzen ez dituzten proposamenak baztertu egingo dira.

3.- Ezaugarrien koadroko **19. ataleko** balio-iritziaren arabera balioetsi beharreko irizpideak haztapen osoaren %50 baino gehiago direnean, kualifikazio egokia duten adituek osatutako batzorde batek edo erakunde tekniko espezializatu batek egingo du BIGARREN gutun-azalaren edo artxibo elektronikoaren aurretiazko ebaluazioa, ezaugarrien koadroko atal horretan berariaz adierazita eta kontratatzailearen profilean argitaratuta. Ezaugarrien koadroko atal honetan jasoko dira adituen batzordeak edo erakunde tekniko espezializatuak baloratu beharreko irizpide zehatzak, horiek balorazioa egiteko epea eta balorazioa kuantifikatzeko gehieneko eta gutxieneko mugak.

29.- Eskaintzak argitzea

Kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak aurkeztutako eskaintzari buruzko argibideak eskatu ahal izango dizkio lizitatzaileari, edo eskaintzaren idazketan egindako ageriko akats materialak zuzentzeko esan, betiere tratu-berdintasunaren printzipioa errespetatuta eta eskaintzaren baldintzak aldatzeko inolako aukerarik eman gabe. Espedientean jasota utzi beharko da egindako guztia (SPKL, 95. art.).

30.- Balio baxuegiak dituzten eskaintzak

1.- Kontratazio-organoak parametro objektiboak ezarri ahal izango ditu ezaugarrien koadroko **19. atalean**, eta horien arabera ulertuko da proposamena ezin dela bete, baxuegitzat jotzen delako.

2.- Anormaltasun-presuntzioan egon daitekeen proposamen bat identifikatzen bada, kontratazio-mahaiak edo, halakorik

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

ezean, kontratazio-organoak lizitatzaileari edo lizitatzaileei eskatu beharko die justifikatu eta xehakatu ditzatela, arrazoituta eta xehetasunez, eskaintzaren anormaltasuna definitu duten beren proposamenaren parametroak, SPKLren 149. artikuluaren 4. paragrafotik 6. paragrafora aurreikusitako prozedura izapidetuz eta, horren emaitza ikusita, proposamena onartzea edo atzera botatzea kontratazio-organoari proposatuz.
3.- Eskaintzaren anormaltasuna justifikatzeko epea: 5 egun baliodun, errekerimendua bidaltzen denetik.

31.- Prozedurako ondorengotza

Prozedura bat izapidetzen ari den bitartean eta kontratua formalizatu aurretik enpresa-ondarea edo jarduera-adar bat fusionatu, zatitu edo eskualdatzen bada, enpresa lizitatzaile edo hautagaiaren oinordeko izango da, prozeduran bere lekuan, sozietate xurgatzailea, bat-egite horretatik sortutakoa, zatiketaren onuraduna edo enpresa-ondarearen edo dagokion jarduera-adarraren eskuratzailea, betiere horretarako gaitasuna badu, kontratatzeko debekurik ez badu eta bere kaudimen eta sailkapena egiaztatzen badu, esleipen-prozeduran parte hartu ahal izateari begira klausula administratibo zehatzen agiri honetan eskatzen diren baldintzak beteta.

32.- Kontratua ez esleitzeko edo egiteko erabakia eta Administrazioak esleipen-prozeduran atzera egitea

1.- Kontratazio-organoak kontratua formalizatu baino lehen bakarrik erabaki ahal izango du kontratua ez esleitzea edo egitea, bai eta esleipen-prozeduran atzera egitea ere, SPKLren 152. artikuluaren arabera. Kontratua Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean iragarri denean, horren berri eman beharko die lizitatzaileei, eta Europako Batzordeari ere jakinarazi beharko dio.

2.- Bi kasuetan, gai diren edo lizitatzaileak diren hautagaiei konpentsazioa emango zaie, baldintza-agiri honen ezaugarrien koadroko **27. atalean** adierazitako kopuruan, hala badagokio.

33.- Esleipena

33.1.- Eskaintzen sailkapena eta esleipen-proposamena

1.- Eskaintzak baloratu ondoren, kontratazio-mahaiak aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu, handienetik txikienera, esleipen-proposamena kontratazio-organoari helarazteko. Kontratazio-organoari bidaliko dizkio, aktarekin batera, dagokion balorazioa eta esleipen-proposamena. Proposamen horretan, eskaintzak beheranzko ordenan jasoko dira, ezaugarri-koadroko **19. atalean** adierazitako irizpideak aplikatuta eskaintza bakoitzari emandako puntuazioa barne, eta kalitate-prezio erlazio onena duena identifikatuko da.

Kontratua esleitzeko proposamenak ez dio inolako eskubiderik ematen proposatutako lizitatzaileari, eta ez ditu eskuratuko Tolosaldeko Mankomunitatearen aurrean, kontratua formalizatu arte.

Irizpide bakarra prezioa denean, eskaintzarik onena preziorik baxuena duena dela ulertuko da.

2.- Ezaugarrien koadroko **19. atalean** berdinketa hausteko irizpiderik aurreikusi ez bada, edo, irizpide horiek aurreikusi bai, baina aplikatu ondoren bi lizitatzaileren edo gehiagoren guztizko puntuazioaren arteko berdinketak bere horretan segitzen badu, SPKLren 147.2 artikuluan aurreikusitako irizpide sozialak hurrenkeraren arabera aplikatuz ebatziko da berdinketa.

33.2.- Kalitate-prezio erlazio onena duen eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileak aurretiko betekizunak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea

1.- Kontratazio-organoak mahaiaren proposamena onartu ondoren, kasuan kasuko zerbitzuek eskaintza onena aurkeztu

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

duen lizitatzaileari eskatuko diote 10 egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, kontratua esleitzeko beharrezkotzat jotzen den dokumentazioa aurkez dezan.

Dokumentazio hori honako hau izango da:

a) Jarduteko gaitasuna eta jarduera-eremua egiaztatzen duten agiriak. Enpresa pertsona juridikoa bada, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, eratze- edo aldatze-eskritura aurkeztu beharko da, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta, aplikatzekoa den merkataritza-legeriaren arabera betekizun hori eska daitekeenean. Baldintza hori bete behar ez bada, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituen eratze-eskritura edo -agiria, estatutuak edo sortze-akta aurkeztu beharko da, eta, hala badagokio, dagokion erregistro ofizialean inskribatutakoak.

Pertsona juridikoak beren estatutuen edo sorrerako arauen arabera berezkoak dituzten helburuen, xedearen edo jarduera-eremuaren barruan dauden prestazioak dituzten kontratuen esleipendun izan ahalko dira soilik, eta gai hori aurkeztutako dokumentazioan egiaztatu beharko da.

Enpresa indibiduala bada, nortasun agiri nazionala edo horren ordez balio duen dokumentua aurkeztuta.

b) Hala badagokio, ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak. Beste baten izenean aurkezten diren edo proposamenak izenpetzen dituzten pertsonek nortasun-agiriaren kopia aurkeztu behar dute, baita horretarako ahalorde askietsia ere.

Ordezkariak NANik ez badu, araudiaren arabera hura ordezten duen dokumentuaren fotokopia aurkeztu beharko du, notarioak legitimatuta edo administrazio-organo eskudunak konpultsatuta.

Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordea Merkataritza Erregistroan inskribatu beharko da. Hala ere, ahalordea egintza jakin baterako bada, ez da beharrezkoa izango Merkataritza Erregistroan inskribatzea, Merkataritza Erregistroaren Araudiaren 94.1.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

c) Kaudimen ekonomiko-finantzarioa eta teknikoa edo profesionala. Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzea SPKLren 87. eta 90. artikuluetan aurreikusitako bideetako baten bidez, lizitazio-iragarkian eta ezaugarrien koadroko **15. atalean** zehaztuta.
Kaudimen ekonomiko-finantzarioa egiaztatzeko, adierazitako urteko Erregistro merkantilean depositatutako kontuak aurkeztu beharko dira, depositoaren egiaztagiriarekin.
Kaudimen teknikoa edo profesionala egiaztatzeko, adierazitako zerbitzu edo lanen ziurtagiriak aurkeztuko dira.

Aldi baterako enpresa-elkarteetan, kaudimena zehazteko, kide bakoitzaren ezaugarriak metatuko dira (HAKLEO, 24.1 artikulua).

Espainiakoak ez diren lizitatzaileek, baldin eta Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako nazionalitatea badute, eta Espainian sailkatuta ez badaude, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta teknikoa egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte, sailkapenaren ordez, SPKLren 87. artikuluan ezarritako moduan, eta kontratazio-organoak ezaugarrien koadroko **15. atalean** aurreikusitako bideen bidez.

Ondorio horietarako, kontratatzeko baimena duten enpresaburuen zerrenda ofizialak eramateko eskumena duten organoek emandako inskripzio-ziurtagiriak, Europar Batasuneko estatu kideek ezarriak, ziurtagiria ematen duen estatu kideko enpresaburuei buruzkoak, gaitasun-presuntzio bat izango dira horietan ageri diren hautaketa kualitatiboko betekizunei dagokienez.

Presuntziozko balio bera izango dute, ziurtagirietan jasotako alderdiei dagokienez, Europako ziurtapen-arauak betetzen dituzten ziurtapen-erakunde eskudunek egindako ziurtagiriek, lizitatzailea kokatua dagoen estatu kideko legeriaren arabera emandakoek.

Aurreko atalean aipatzen diren agiriek enpresaburua zerrendan inskribatzea edo ziurtagiria ematea

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

ahalbidetu duten erreferentziak adierazi beharko dituzte, bai eta lortutako sailkapena ere.

d) Kontratuaren xede den prestazioa egiteko enpresa- edo lanbide-gaikuntza egiaztatzea. Kontratatzeko gaitasun-baldintza gisa legez eska badaiteke, kontratu honen xede den prestazioa egiteko enpresa- edo lanbide-gaikuntza egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

e) Kaudimena kanpoko baliabideen bidez egiaztatzeko (SPKLren 75. artikulua), kontratua gauzatzeko giza baliabide eta baliabide material horiek benetan badituela frogatu beharko da, erakunde horien idatzizko konpromisoa aurkeztuta.

Lizitatzaileak kontratua gauzatuko du bere kaudimena egiaztatzeko aurkeztu dituen baliabide berberekin. Horiek ordeztu ahal izango ditu, soilik, aurreikusi ezin diren arrazoiengatik, kaudimen baliokidea egiaztatzen duten beste bitarteko batzuk erabiliz eta Administrazioaren kasuan kasuko baimenarekin.

f) Lizitatzaileak azpikontratatu nahi duen kontratuaren zatiari buruzko adierazpena. Ezaugarrien koadroko **17. atalean** hala eskatzen bada, lizitatzaileek kontratuaren zein zati azpikontratatu nahi duten adierazi beharko dute, eta kontratuaren zenbatekoa adierazi beharko dute, ehunekotan, bai eta azpikontratisten izena edo enpresa-profila ere, kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzen arabera zehaztuta (SPKL, 215. artikulua).

g) Ingurumena kudeatzeko eta kalitatea bermatzeko arauak betetzea. Hala aurreikusten bada ezaugarrien koadroko **15. atalean**, lizitatzaileak bertan adierazitako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

h) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak, edo kontratua kudeatzen duen organoari baimena ematea Gipuzkoako Foru Aldundiko organo eskudunak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak zerga-betebeharrak eta betebehar sozialak betetzeari buruz egin beharreko ziurtagiriak eskatzeko.

i) 250 langiletik gorako enpresek **berdintasun-plan bat dutela egiaztatzen duten agiriak** aurkeztu beharko dituzte, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

j) Desgaitasuna duten langile finkoen kopuruari buruzko adierazpena. 50 langile edo gehiagoko enpresek %33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuen erreserba-kuota betetzen dutela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte, edo, bestela, osagarri gisa edo subsidiarioki, alternatiboki har daitezkeen neurriak betetzen dituztela egiaztatzen dutenak, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duenak, eta horren garapenerako araudiak aurreikusten dutenarekin bat etorriz.

k) Jarduera ekonomikoen gaineko zergari lotutako jarduerak egiten direnean: uneko ekitaldiari dagokion alta edo azken ordainagiria, aipatutako zergaren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpenarekin batera, eta, hala badagokio, salbuetsita egotearen erantzukizunpeko adierazpena.

l) Behin betiko bermea eratzea, kasu bakoitzean dagokiona. Honela gordailutu ahal izango da:

- Tolosaldeko Mankomunitatearen izenean dagoen Bankuko Kontuan, eskudiruzko bermeak direnean, eta, orduan, gordailua egiaztatzen duen frogagiria sartu beharko da.
- Kontratazio-organoaren aurrean, idatzitako balioak, abalak edo kauzio-aseguruaren ziurtagiriak inmobilizatu izanaren ziurtagiriak direnean (ikus abalaren eredua **VII. Eranskinean**).

m) Aseguru polizak hitzartu direla egiaztatzen duten agiriak ezaugarrien kuadroko **25 atalean** asegururen bat eskatzen denean.

2.- Hala eta guztiz ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko inskripzio-ziurtagiria aurkeztuz gero, enpresa lizitatzailea salbuetsita geldituko da, hartan adierazitakoaren arabera, eta kontrakorik frogatu ezean, erregistroan inskribatuta dauden inguruabarrak egiaztatzeko agiriak aurkeztetik.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatu izanaren ziurtagiria aurkezteak

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

SPKLren 87.2 eta 96. artikuluetan eta SPKLren zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 19. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

Ziurtagiriekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, ziurtagirian jasotako inguruabarrak ez direla aldatu adierazten duena.

Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko inskripzioan egiaztatu behar duen eskakizunen bat azaltzen ez denean, enpresak SPKLan aurreikusten diren bitartekoetako baten bidez justifikatu beharko du.

Enpresa Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta badago, edo Europar Batasuneko estatu kide bateko datu-base nazional batean enpresaren espediente birtual bat, dokumentuak elektronikoki biltegiratzeko sistema bat edo aurrekalifikazio-sistema bat bezala agertzen bada, eta aipatutako organoek horiek doan eskura baditzakete, ez du zertan aurkeztu toki horietan inskribatutako datuen frogagiriak edo bestelako froga dokumentalak, eta eta lizitatzaileak berariaz adierazi beharko du dagokion erregistroan edo datu-basean inskribatuta dagoela.

3.- Aurreko bi ataletan aipatutako dokumentazioa ezarritako epean aurkezten ez bada, lizitatzaileak bere eskaintza baztertu duela ulertuko da, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren (BEZ kanpo) ehuneko 3ko zenbatekoa eskatuko zaio, zigor gisa. Diru-kopuru hori jasotzeko, behin-behineko bermera joko da lehenik, eratu bada.

Aurreko paragrafoan adierazitako kasuan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkatu diren ordenaren arabera (SPKL, 150.2 art.).

4.- Klausula honetan ezarritakoa adierazitako epean betetzen ez duen lizitatzailea kontratatzeko debeku-egoeran deklaratu ahal izango da, SPKLren 71.2 a) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, baldin eta doloa, errua edo zabarkeria badaude tartean.

33.3.- Behin betiko bermea

1.- SPKLren 145. artikuluan xedatutakoaren arabera eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak behin betiko bermea eratu beharko du kontratazio-organoaren eskura. Zenbateko hori lizitatzaileak eskainitako azken prezioaren 100eko 5ekoa izango da, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kenduta. Berme hori eratu dela egiaztatu beharko da hamar egun balioduneko epean, SPKLren 150.2 artikuluko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

2.- Ezaugarrien koadroko **18. atalean** agertzen den behin betiko bermea SPKLren 108. artikuluan eta HAKLEOren 55. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako moduetako edozeinetan eratu ahal izango da. Enpresa esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik baldintza hori betetzen ez bada, Administrazioak ez du haren aldeko esleipena egingo.

3.- Ezaugarrien koadroko aipatutako atalean hala aurreikusten bada, prezioan atxikipena eginez eratu ahal izango da.

Prezioan atxikipena eginez eratzen bada, behin betiko bermea kontratistari jasanaraziko zaio, berariazko baimena eman ondoren, eta horren kopurua lehen fakturatik eta hurrengoetatik kenduko da, harik eta kopurua osatu arte.

4.- kontratistari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak bermearen bidez ordaintzen badira, kontratistak berriz jarri beharko du bermea, edo lehendik jarritakoa dagokion kopuruz handitu, betearazpenetik 15 egun naturaleko epean; bestela, kontratua suntsiarazteko arrazoi izango da.

5.- Kontratua aldatzearen ondorioz prezioa aldatzen bada, bermea doitu egin beharko da 15 egun naturaleko epean, esleipendunari aldaketa-erabakia jakinarazten zaion egunetik zenbatzen hasita, aldatutako prezio berriarekin behar bezalako proportzioa izan dezan.

6.- Nolanahi ere, behin betiko bermea SPKLren 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuen araberakoa izango da. Kontzeptu horien barruan sartzen da kontratistak ez betetzea kontratuaren xede diren prestazioak behar bezala ez gauzatzearen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galerak ordaintzeko betebeharra, SPKLren 196. artikuluan aurreikusitakoa.

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

7.- Behin-behineko bermea eratzen den kasuetan, esleipendunak, aukeran, behin-behineko bermearen zenbatekoa aplikatu ahal izango dio behin betiko bermeari, edo azken hori berriro eratu.

8.- Berme osagarria SPKLren 107.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera ezarriko da, eta, hala badagokio, ezaugarrien koadroko **18. atalean** xedatutakoaren arabera.

33.4.- Esleipena

1.- **33.2 klausulan** aipatzen den dokumentazioa jaso eta 5 egun balioduneko epean esleitu beharko du kontratua kontratazio-organoak.

Lizitazio bat ezin izango da esleitu gabe utzi baldintza-agirian jasotako irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago.

2.- Esleipen-ebazpena arrazoitu egin beharko da, eta enpresa hautagaiei eta lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da 15 eguneko epean.

3.- Aurreko atalean aipatzen den jakinarazpenak eta publizitateak beharrezko informazioa izango dute, esleipen-prozeduran interesa duten pertsonek esleipen-erabakiaren aurka errekurtsoa jartzeko aukera izan dezaten, eta, bereziki, SPKLren 151.2 artikuluan eskatutakoa.

4.- Esleipenaren arrazoiei SPKLren 155.3 artikuluan jasotako konfidentzialtasun-salbuespena aplikatuko zaie.

5.- Nolanahi ere, jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean adieraziko da zer epetan formalizatu behar den, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera.

34.- Kontratua formalizatzea

1.- Lizitazioaren baldintzetara zehatz egokitzen den administrazio-dokumentu batean formalizatu beharko da kontratua, eta dokumentu hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak eska dezake kontratua eskritura publiko bihurtzeko, eta bere kontura izango dira dagozkion gastuak. Kontratua formalizatzeko dokumentuan ezin izango da, inola ere, esleipenaren baldintzak aldatzea dakarren klausularik sartu.

2.- Kontratua formalizatzearekin burutzen da, eta inola ere ezingo da kontratua gauzatzen hasi aldez aurretik formalizatu gabe.

3.- Kontratua sinatu aurretik, esleipendunaren ordezkariak honako hauek aurkeztu beharko dizkio kontratazio-organoari:

a) Nortasuna eta ordezkaritza egiaztatzeko agiriak.
b) Esleipenduna aldi baterako enpresa-elkartea bada, elkartea eratu izanaren eskritura publikoa, esleitutako IFK eta behar besteko ahalordea duen ordezkariaren izendapena.
c) Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroak edo Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialak emandako ziurtagiria aurkeztuz gero, esleipendunak ziurtagiria ematea eragin zuten inguruabarrak indarrean daudela berretsi beharko du.

4.- Kontratuaren aurka kontratazio-arloko errekurtso berezia jar badaiteke, kontratua ezin izango da formalizatu esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileei bidali eta 15 egun baliodun igaro baino lehen.

Kontratazio-organoak kontratua formalizatzeko eskatuko dio esleipendunari, gehienez ere 5 egun naturaleko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igaro eta kontratuaren formalizazioa etetea dakarren errekurtsorik jarri ez bada. Berdin jokatuko du errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak etenaldia bertan behera uzten duenean.

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

5.- Gainerako kasuetan, kontratua gehienez ere 15 egun balioduneko epean formalizatu beharko da, esleipendunak esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

6.- Esleipendunak bere proposamen teknikoan bere gain hartzen dituen betebeharrak sartu beharko dira berariaz kontratuaren edukian, gizarte- eta ingurumen-alderdiei buruzko esleipen-irizpide gisa baloratutako alderdiei dagokienez.

7.- Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta kontratua ez bada epe horren barruan formalizatu, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren ehuneko 3ko zenbatekoa eskatuko zaio, BEZ kanpo, zigor gisa, eta diru-kopuru hori jasotzeko, behin-behineko bermera joko da lehenik, eratu bada. Horrez gain, kontratatzeko debekua ere ezarri ahal izango zaio, SPKLren 71.2.b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

8.- Ez formalizatzeko arrazoiak Administrazioari egozteko modukoak badira, berandutzeak eragindako kalte-galeren ordaina emango zaio kontratistari.

9.- Kontratua formalizatu dela argitara emango da, SPKLren 154. artikuluan xedatutakoaren arabera.

III. KAPITULUA - KONTRATUA GAUZATZEA

35.- Kontratuaren arduraduna

1.- Kontratazio-organoak, kontratua esleitzeko ebazpenean, kontratuaren arduradun bat izendatuko du, eta pertsona horri dagokio kontratuaren gauzatzea gainbegiratzea eta hitzartutako prestazioa behar bezala egiten dela ziurtatzeko behar diren erabakiak hartzea eta jarraibideak ematea.

Era berean, kontratuaren arduradunak laguntzaileak izan ahal izango ditu, lanbide-tituluen edo berariazko ezagutzen arabera, eta horiek kontratua esleitzeko ebazpenean bertan identifikatuko dira.

2.- Kontratuaren arduraduna enpresa esleipendunaren eta kontratazio-organoaren arteko solaskidea da.

3.- Arduradunak eta berarekin lan egiten dutenek, beren eginkizunak betetzeko, sarbide librea izango dute kontratuaren xedea betetzeko lekuetara, eta egokitzat jotzen dituzten ikuskapenak egin ahal izango dituzte, kontratistak koordinatzaile izendatutako pertsonarekin batera, betiere kokaleku horiek eta haien baldintza teknikoak erabakigarriak badira kontratuaren xede diren prestazioak garatzeko. Kasu horietan, kontratuaren arduradunak informazioa eskuratzeko beharra justifikatu beharko du, berariaz eta zehatz-mehatz, administrazio-espedientean, eta kontratazio-organoak berretsi beharko du aldez aurretik.

Era berean, egoki iritzitako informazioa eta dokumentazioa eskatu ahal izango dute, eta kontratuaren xedea behar bezala betetzeko eta hura gauzatzean izandako edozein gorabehera konpontzeko beharrezkoak diren bilerak sustatu eta deitu ahal izango dituzte.

Kontratuaren arduradunak ezarriko ditu jarraibide egokiak.

4.- Bereziki, honako eginkizun hauek dagozkio:

a) Kontratuaren baldintzetan eta aurreikusitako iraupen-epean gauzatzen dela egiaztatzea. Bereziki, kontratuaren kalitate-baldintzak eta klausula sozialak, ingurumenekoak, sozialak eta berritzaileak betetzen diren egiaztatzeko behar diren ekintzak gauzatzea.
b) Edozein motatako ez-betetzeen berri ematea kontratazio-organoari, eta, hala badagokio, honako hauek proposatzea: zigorrak ezartzeko prozedura hastea, kontratua etetea, kontratua suntsiaraztea eta kontratua

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

behar bezala betetzen dela bermatzeko edo enpresa kontratistaren ez-betetzeak eragindako kalte-galerak Administrazioari ordaintzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartzea.

c) Kontratuan egin beharreko edozein aldaketa gomendatzea, hala nola eragiketa eraginkorragoak ahalbidetzen dituzten zehaztapenak, jarraibideak edo bestelako betekizunak.

d) Kontratuari atxikitako giza baliabideak edo baliabide materialak aldatzeko baimena ematea, kontratazio-organoaren jarraibideei jarraituz, kontratua aldatzea ez dakarten kasuetan.

e) Luzapenen behar eta egokitasunari buruzko txostena egitea eta horien arrazoiak ematea.

f) Enpresa kontratistak azpikontratistei edo hornitzaileei ordaintzeko betebeharra betetzen duela egiaztatzea.

5.- Kontratua gauzatzen den bitartean kontratuaren arduraduna edo laguntzaileak aldatzen badira, idatziz jakinaraziko zaio enpresa kontratistari, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

36.- Kontratistaren ondorengotza

1.- Enpresen edo horien jarduera-adarren bat-egite, zatiketa, ekarpen edo eskualdatze kasuetan, kontratuak aurrera jarraituko du kontratua esleitu zaion erakundearekin, eta kontratu horretatik eratorritako eskubide eta betebeharretan subrogatuta geratuko da, SPKLren 98. artikuluan eskatutako baldintzak betetzen badira. Kontratista aldi baterako enpresa-elkartea bada, SPKLren 69.8 artikuluan ezarritakoa beteko da.

2.- Kontratistak modu frogagarrian jakinarazi beharko dio Administrazioari bere nortasun juridikoari eragiten dion edozein aldaketa, eta dagozkion fakturak ordaintzeko legez aurreikusitako epeen zenbaketa eten egingo da horiek egiaztatu arte.

3.- Subrogazioa ezin bada egin kontratua esleitu zaion erakundeak ez dituelako betetzen beharrezko kaudimen-baldintzak, kontratua suntsiarazi egingo da, eta esleipendunaren erruz suntsiarazten den kasutzat hartuko da ondorio guztietarako.

37.- Kontratua lagatzea

1.- Kontratutik sortutako eskubideak eta betebeharrak hirugarren pertsona bati laga ahal izango dizkio pertsona edo enpresa esleipendunak, baldin eta haren ezaugarri tekniko edo pertsonalak ez badira izan kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarriak eta lagapenak ez badu merkatuko lehiaren benetako murrizketa eragin.

2.- Kontratistak bere eskubideak eta betebeharrak hirugarrenei laga ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Kontratazio-organoak berariaz eta aldez aurretik lagapena baimentzea.

b) Lagatzaileak gutxienez kontratuaren zenbatekoaren 100eko 20 gauzatuta izatea.

c) Lagapen-hartzaileak kontratatzeko gaitasuna izatea eta kontratua gauzatzeko fasearen arabera eska daitekeen kaudimena izatea. Baldintza hori lagatzaileari eskatu bazaio, behar bezala sailkatuta egon beharko du, eta ez du kontratatzeko debeku-arrazoirik izan beharko.

d) Lagapena eskritura publikoan formalizatzea enpresa esleipendunaren eta enpresa lagapen-hartzailearen artean.

3.- Lagapen-hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

38.- Gauzatzeko baldintzak eta betebeharrak

38.1.- Baldintza orokorrak

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

1.- Kontratua gauzatzeko, zorrotz bete beharko dira agiri honetan ezarritako klausulak, baldintza teknikoen agiria eta kontratuaren arduradunak kontratistari kontratua interpretatzeko emandako jarraibideak.

2.- Esleipenduna izango da zerbitzuaren xede diren ondasunen kalitatearen erantzule, bai eta kontratua gauzatzean ez-egiteak, akatsak, metodo desegokiak edo ondorio okerrak gertatuz gero administrazioari edo hirugarrenei sor dakizkiekeen ondorioen erantzule ere.

3.- Pertsona edo enpresa kontratistak ekipo eta baliabide pertsonal egokiekin eman beharko du zerbitzua, eta lanak aurrera egin ahala sortzen diren premiei erantzun beharko die uneoro. Proposamenean jasotako baliabide teknikoak ere jarriko ditu, eta, oro har, lanak behar bezala egiteko behar diren guztiak.

4.- Nolanahi ere, kontratistak erantzukizun zibileko aseguru bat izan beharko du, kalteengatik izan dezakeen erantzukizuna estaltzeko. Enpresa esleipendunak kontratu horren kopia aurkeztu beharko du, bai eta kontratu hori sinatu aurretik ordaindutako azken ordainagiriaren kopia ere. Gainera, hala ezartzen bada ezaugarrien koadroko **25. atalean**, adierazitako estaldurak ziurtatu beharko ditu, eta zehazten diren aseguru osagarriak izan beharko ditu.

Nolanahi ere, kontratistak ordainduko ditu kalte-galerak, aseguru polizetako mugak gainditzen dituen zatian eta polizek estali gabeko ondasunetan eta arriskuetan.

5.- Administrazioak erabakiko du kontratistak emandako prestazioa bat datorren prestazioa gauzatzeko eta betetzeko ezarritako aginduekin, eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak egiteko eta prestazioa jasotzean ikusitako akatsak zuzentzeko eskatuko du. Egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako prestazioarekin, kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo hutsen ondorioz, uko egin ahal izango dio prestazioari, eta ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geratuko da, edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du.

6.- Lizitaziora aurkezten diren enpresek beren borondatez onartzen dute gardentasun instituzionala ematea lizitazio-, esleipen- eta gauzatze-prozesuetatik eratorritako datu guztiei.

38.2.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak

Ezaugarrien koadroko **21. atalean** aurreikusitakoez gain, honako hauek dira gauzatzeko betebehar bereziak:

38.2.1.- Lan, gizarte eta ingurumen-babesaren arloko baldintzak

1.- Kontratistak nahitaez bete behar ditu lan-arloan, gizarte-segurantzaren arloan, laneko segurtasun eta osasunaren arloan eta ingurumena babestearen arloan aplikatzekoak diren indarreko legezko, arauzko eta hitzarmenezko xedapenak, bai eta agiri hauetan ezartzen direnak ere.

2.- Kontratistak enpresa kontratistaren jarduera kokatzen den sektoreko eremu txikieneko sektoreko azken hitzarmen kolektiboan ezarritako lan-baldintzak aplikatuko dizkie kontratua gauzatuko duten langileei, alde batera utzi gabe indarrean dauden eta hitzarmenean xedatutakoa hobetzen duten beste enpresa-hitzarmen edo itun batzuk.

3.- Kontratua gauzatzen den aldi osoan, enpresa kontratistak kontratuari atxikitako langileen lan-baldintzak mantendu behar ditu, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboaren arabera, eta ez ditu baldintza horiek okertu behar; eta hori guztia kontuan hartu gabe hitzarmen kolektibo horrek gero indarra galdu dezakeela, hitzarmen kolektiboen indarraldia amaitzeari buruzko legezko aurreikuspenen edo aurreikuspen konbentzionalak betez. Obligazioa betetzat joko da, baldin eta indarrean dauden lan-baldintzei eusten bazaie indargabetzea gertatu aurreko unean. Nolanahi ere, lan-baldintzak mantentzeko betebeharra betetzat joko da, baldin eta horiek aldatu egin badira enpresa kontratistaren eta langileen ordezkarien arteko akordio bidez, baina soldata-baldintzak ezin izango dira inola ere izan sektoreko hitzarmen kolektibo aplikagarrian ezarritakoak baino txikiagoak. Kontratistak hori egiaztatzeko eskatzen zaion informazio edo dokumentazio oro eman beharko dio kontratazio-organoari.

4.- Esleipendunak kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa adierazi

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

beharko du. Horretarako, esleitu ondoren, kontratu horri atxikitako langileei benetan aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz behar den informazio guztia eman beharko du.

5.- Enpresa esleipendunaren iritziz kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipen-ebazpenean sartuko da, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

6.- Atxikitako langileen lan-baldintzak aldatzen badira eta aldaketa horiek esleipenaren unean aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan ezarritakoei eragiten badiete, aldez aurretik jakinarazi beharko zaio kontratazio-organoari. Jakinarazpenak negoziazioaren justifikazio-dokumentazioa jaso beharko du, bai eta lan-baldintza berrien edukia eta horiek kontratuaren kostuen egituran izango duten berehalako eta etorkizuneko ondorio ekonomikoa ere.

7.- Azpikontratazioaren kasuan, enpresa azpikontratistak klausula honetan xedatutakoa bete beharko du. Azpikontratatutako jarduera hasi aurretik, azpikontratatutako enpresetako langileen afiliazioa eta gizarte-segurantzako alta egiaztatuko ditu enpresa kontratistak, eta kontratazio-organoari jakinaraziko dio.

8.- Enpresa kontratistak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, erakunde kontratatzailea klausula horren ondoriozko ondorio ekonomikoak bere gain hartzera zigortzen badute, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko zaizkio, eta, horretarako, Administrazio kontratatzaileak egoki eta komenigarri diren ekintza administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbatekoak guztiz berreskuratu arte.

38.2.2.- Kontratua gauzatzeari lotutako langileei buruzko baldintzak

1.- Esleipendun gisa proposatutako enpresak, kontratatutako jarduera hasi aurretik, kontratua gauzatzeko erabiliko dituen langileen zerrenda aurkeztu beharko du, eta Gizarte Segurantzan alta emanda eta afiliatuta daudela egiaztatu.

Bestela, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, non adieraziko duen ez dituela kontratatuta data horretan kontratua gauzatzeko ardura hartuko duten pertsonak, eta pertsona horien guztien afiliazioa eta alta egiaztatuko dituela kontratatu dituenean, betiere kontratatutako jarduera hasi aurretik.

2.- Enpresak kontratuaren xederako atxikiko dituen langile berriak kontratatzen dituenean, honako informazio eta dokumentazio hau eman beharko dio erakunde kontratatzaileari:

- Afiliazioa eta alta Gizarte Segurantzan.
- Kontratu-modalitatea, kontratuaren xedea, kategoria edo lanbide-taldea eta lanaldia.
- Urteko soldata gordina (ordainsari-kontzeptuen arabera banakatua).
- Hala badagokio, hitzarmen kolektibo aplikagarria eta indarrean dauden itun aplikagarriak.
- Hala dagokionean, lan horretarako gaitzen duen titulazio akademikoa.

3.- Enpresa kontratistak hilero bidaliko dizkio kontratuaren arduradunari kontratuari atxikitako langile guztien eta hari lotutako gainerako pertsona fisiko eta juridikoen zerrenda, bai eta langileen soldatak eta gizarte-segurantzako kuotak ordaindu izana egiaztatzen duten agiriak ere.

4.- Kontratuaren baldintzak betetzen ari direla egiaztatzeko, kontratazio-organoak beharrezkoa eta egokia den informazio pertsonala baino ezin izango du eskuratu, ez gehiegizkoa eta datuen kalitate-printzipioaren araberakoa, betiere datuak babesteari buruzko legeriak eskatzen dituen printzipioak betez.

5.- Enpresa kontratistak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, erakunde kontratatzailea klausula horren ondoriozko ondorio ekonomikoak bere gain hartzera zigortzen badute, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko zaizkio, eta, ondorio horietarako, Administrazio kontratatzaileak egoki eta komenigarri diren ekintza administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, ordaindutako zenbatekoak guztiz berreskuratu arte.

38.2.3.- Subrogazio-kasuetako baldintzak

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

1.- SPKLren 130. artikuluan aurreikusitako informatzeko betebeharra aplikatuz, ezaugarrien koadroko **26. atalean** subrogazioaren eraginpeko langileen kontratuen baldintzei buruzko informazioa ematen da, enpresa lizitatzaileei aukera emateko kontratuaren esleipendun izanez gero izango dituzten benetako lan-kostuen ebaluazio egokia egiteko.

Informazio hau ematen da, hain zuzen ere: subrogatuko diren langileen zerrenda, aplikatuko den hitzarmen kolektiboa, lan-kategoria, kontratu mota, antzinatasun-data, lanaldia, kontratuaren muga-eguna, langile bakoitzaren urteko soldata gordina, subrogazioaren eraginpeko langileei aplikatuko zaizkien indarreko itunak eta, nahitaezkoa denean, titulazio akademikoa.

2.- Kontratua enpresa berriari esleitu ondoren, baina kontratua gauzatzen hasi aurretik, zerbitzua uzten duen enpresak ziurtagiri bat emango dio esleipendun berriari. Ziurtagiri horretan, honako hauek jasoko dira: langileen izenak, jaiotegunak, edozein motatako ordainsari guztien zenbatekoa (ordainsari-kontzeptuaren arabera banakatuta), antzinatasuna, kontratu-modalitatea, kontratuaren aurreikusitako muga-eguna, lanaldia, kategoria edo lanbide-taldea, eta indarrean dauden itun aplikagarri guztiak, bai eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena, eta ordaindu beharreko zati proportzionalen likidazioaren ordainagiriak; halaber, esleipendun berriaren eskura jarriko ditu hark egokitzat jotzen dituen agiriak, hori guztia egiazkoa dela egiaztatzeko.

Enpresak langileen ordezkaritza duen kasuetan, ziurtagiriarekin batera, hark egindako txostena aurkeztu beharko da, gutxienez, aurreko paragrafoan adierazitako datuei buruzkoa.

3.- Subrogazioa egin ondoren, lan-kostuak handiagoak badira kontratista zaharrak kontratazio-organoari emandako informaziotik ondorioztatzen direnak baino, kontratista berriak zuzeneko akzioa izango du kontratista zaharraren aurka.

4.- Kontratua uzten duen kontratistak subrogazioaren eraginpeko langileei ordaindu gabeko soldaten erantzukizuna izango du, bai eta sortutako Gizarte Segurantzako kotizazioena ere, nahiz eta kontratua suntsiarazi eta kontratista berriak langileak subrogatu. Nolanahi ere, azken honek ez du betebehar hori izango (subrogazioa Langileen Estatutuaren 44. artikulua aplikatuz egin ez bada). Horretarako, erakunde kontratatzaileak, aipatutako soldatak ordaindu ez direla egiaztatu ondoren, kontratistari zor zaizkion zenbatekoak atxikiko ditu aipatutako soldatak ordaintzen direla bermatzeko, eta ez du behin betiko bermea itzuliko soldata horiek ordaindu direla egiaztatzen ez den bitartean.

5.- Enpresa kontratistak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, erakunde kontratatzailea klausula horren ondoriozko ondorio ekonomikoak bere gain hartzera zigortzen badute, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko zaizkio, eta, ondorio horietarako, Administrazio kontratatzaileak egoki eta komenigarri diren ekintza administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, ordaindutako zenbatekoak guztiz berreskuratu arte.

38.2.4.- Gauzatzeko hizkuntza-baldintzak

1.- Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarritako eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren erakunde autonomoen jardun-eremuan euskararen erabilera normalizatzeko indarrean dagoen planean araututako hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidearen mende dago.

2.- Ezaugarrien koadroan besterik adierazten ez bada, enpresa esleipendunak bi hizkuntza ofizialetan emango ditu kontratuaren xedea osatzen duten azterlanak, txostenak, proiektuak edo bestelako lanak, softwareen testu- eta soinu-interfazeak barne.

3.- Diseinu eta jarduera guztiak (errotuluak, argitalpenak, seinaleztapenak, abisuak eta komunikazioak barne) bi hizkuntzatan egin behar dira, euskaraz eta gaztelaniaz, salbu eta kasu jakin batzuetan komenigarritzat jotzen denean euskara lehentasunez erabiltzea, planteatzen den ekintzaren ezaugarrien eta ekintzaren xede den herritarren segmentuaren arabera, betiere herritarrek hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea zainduta.

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

4.- Euskararen erabilera bermatuko da errotuluetan, argitalpenetan, seinaleztapenetan, oharretan eta komunikazioetan, eta, oro har, elkarrizketan.

5.- Kontratua gauzatzeko beharrezkoa bada hirugarrenekin edo, oro har, herritarrekin erlazionatzea, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresaren eta kontratua gauzatzeko enpresak harremana izango duen pertsonen arteko ahozko zein idatzizko komunikazioan erabiltzaileak edo hirugarren pertsonak aukeratzen duen hizkuntza erabiliko da. Espresuki inolako aukerarik egin ez bada, esleipenaz arduratzen den enpresak pertsona fisiko edo juridikoei egiten dizkien mota guztietako jakinarazpen eta komunikazioak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira; nolanahi ere, herritarrak edozein unetan baliatu ahal izango du hizkuntza aukeratzeko eskubidea, eta hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea eskatu ahal izango du.

38.2.5.- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko baldintzak

1.- Kontratua gauzatzean, enpresa esleipendunak neurriak ezarri beharko ditu emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko enplegua lortzean, sailkapen pertsonalean, sustapenean, iraunkortasunean, prestakuntzan, ordainsarietan, lan-kalitatean eta -egonkortasunean, lanaldiaren iraupenean eta antolamenduan, bai eta kontratua gauzatzeari atxikitako langileen bizitza pertsonala, bizitza familiarra eta lan-bizitza uztartzen laguntzen duten neurriak ere, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak ezarritakoaren arabera.

2.- Enpresa esleipendunak hizkera ez-sexista erabili beharko du kontratua gauzatzean sortzen diren dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan, eta saihestu egin beharko ditu emakumeen irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexistak, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta rol eta genero-identitate anitzen balioak dituen irudia sustatu beharko du.

3.- Enpresa edo erakunde esleipendunak bermatuko du lanean sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak hartuko direla hamar langile baino gehiago behar dituzten kontratuetan.

38.2.6.- Baldintzak azpikontratazio-kasuetan

1.- Azpikontratuak egiteko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Esleipendunak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari, kontratua esleitu ondoren eta, beranduenez, kontratua gauzatzen hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa, azpikontratu nahi duen prestazioaren zatia eta azpikontratisten nortasuna, harremanetarako datuak eta legezko ordezkariak adierazita, eta behar bezala justifikatuta azpikontratistek azpikontratatu nahi diren prestazioaren zatiak gauzatzeko duten gaitasuna eta Administrazioarekin kontratatzeko debeku eza.

Proposatutako azpikontratista SPKLren 71. artikuluan aurreikusitako kontratatzeko desgaikuntza eta debekuen eraginpean ez dagoela egiaztatze aldera, enpresa kontratistak, aurreko atalean adierazitako dokumentazioarekin batera, nahitaez aurkeztu beharko du azpikontratistak zentzu honetan sinatutako erantzukizunpeko adierazpen bat.

Eskaintzan adierazitakoa betetzen ez duten azpikontratuak (eskaintzan bertan adierazitako enpresekin ez egiteagatik edo eskaintzan jasotako prestazio zatiei dagokiena ez izateagatik) ezin izango dira gauzatu jakinarazpena egin eta azpikontratistak, kontuan hartuta dauzkan bitarteko teknikoak nahiz giza baliabideak eta esperientzia, kontratua gauzatzeko duen gaitasuna egiaztatzen duten agiriak aurkezten direnetik 20 egun igaro arte, baldin eta aurrez berariazko baimena jaso ez badute, eta beti ere epe horretan Administrazioak ez badu azpikontratu horien aurka dagoela jakinarazten. Araubide hori bera ezarriko da, halaber, azpikontratistak beren profil profesionalaren deskribapenaren bidez identifikatu badira eskaintzan.

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

b) Enpresa kontratistaren erantzukizunpean, 20 egun naturaleko epea igaro behar izan gabe sinatu ahal izango dira azpikontratuak, baldin eta larrialdi-egoera bati edo premiazko neurriak hartzea eskatzen duen egoera bati aurre egiteko nahitaezkoa bada, eta behar bezala arrazoitzen bada.

c) Izaera sekretua edo erreserbatua duten kontratuetan, edo lege zein arauzko xedapenen arabera kontratua segurtasun neurri bereziekin gauzatu behar denean, edo Administrazio segurtasunaren funtsezko interesak babesteko beharrezkoa denean, azpikontratazioa egiteko kontratazio organoaren berariazko baimena beharko da beti.

2.- Ezaugarrien koadroko **17. atalean** adierazten diren zeregin kritikoak ezin dira azpikontratatu, eta kontratista nagusiak egin beharko ditu zuzenean.

3.- Azpikontratatuak kontratista nagusiaren mende bakarrik egongo dira, eta beraz, Administrazioaren aurrean kontratista nagusia izango da kontratuaren erantzule bakarra, hitzez hitz bete beharko dituelarik administrazio-baldintza zehatzen agiria eta kontratuan xedatutakoa, ingurumen-, gizarte- edo lan-arloko betebeharrak barne.

Administrazioak aurreko 1. ataleko a) eta b) letretan aipatzen diren jakinarazpenen arabera sinatutako azpikontratuen berri izateak, edo aipatutako ataleko c) letran aurreikusitako kasuan eman dezakeen baimenak ez dute aldatuko kontratista nagusiak duen erabateko erantzukizuna.

4.- Enpresa kontratistak inola ere ezin izango du hitzartu kontratuaren zati bat egitea lege ordenamenduaren arabera kontratatzeko ezgaituta dauden pertsonekin edo SPKLren 71. artikuluan jasotako kasuetan daudenekin.

5.- Enpresa kontratistak azpikontratazioaren berri eman beharko die langileen ordezkariei, lan alorreko legedian xedatutakoaren arabera.

6.- Enpresa edo erakunde esleipendunak azpikontratazioa jasoko duen dokumentua aurkeztu beharko dio kontratazio-organoari. Dokumentu horretan zehaztuko dira enpresa edo erakunde azpikontratistak kontratu honetan aurreikusitako klausulei dagokienez dituen betebeharrak eta klausula horiek ez betetzearen ondorioak.

7.- Azpikontratistei ordaintzeko, SPKLren 216. artikuluan eta merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen Hirugarren Xedapen iragankorrean xedatutakoa bete beharko da.

8.- Administrazioak egiaztatu ahal izango du kontratistak zorrotz bete dituela kontratuan parte hartzen duten azpikontratistei edo hornitzaileei egin beharreko ordainketak.

Horretarako, kontratistak Administrazioari bidaliko dio, hark hala eskatzen duenean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda zehatza, haien partaidetza perfekzionatzen denean, bai eta horietako bakoitzaren azpikontratazio- edo hornidura-baldintzak ere, ordainketa-epearekin lotura zuzena badute.

Era berean, Administrazioak hala eskatzen duenean, SPKLren 216. artikuluan eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeak bete izanaren egiaztagiria emango dio Administrazioari, prestazioa amaitutakoan.

38.2.7.- Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko baldintzak

1.- Enpresa kontratistak laneko segurtasunaren eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, baita hitzarmen kolektibo aplikagarritik datozenak ere.

2.- Enpresa kontratistak laneko segurtasun- eta higiene-neurriak hartu beharko ditu, nahitaezkoak edo beharrezkoak, kontratuaren xedearen eraginpeko langileen osotasunari eta osasunari eragin diezaieketen arriskuak zorrotz prebenitzeko.

3.- Zerbitzu-kontratuaren xedearen izaerak kontratistaren (edo, hala badagokio, azpikontratistaren) esku-hartzea eskatzen badu, eta kontratistak administrazio kontratatzailearen zentroetan prestazioren bat egin behar badu, eta zentro horietan administrazioko langileek ere lan egiten badute, jarduera hasi aurretik, parte hartzen duten enpresa eta langile

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

autonomo guztiek lankidetzan jardun beharko dute, eta informazioa trukatu beharko dute garatuko dituzten eta parte hartzen duten beste enpresetako langileei eragin diezaieketen jardueren arrisku espezifikoei buruz. Enpresek beren langileei jakinaraziko dizkiete jarduerak batera egiteak dakartzan arriskuak, eta beharrezkoak eta egokiak diren koordinazio-bitartekoak ezarriko dituzte. Horretarako, jasotako informazioa kontuan hartuko da laneko arriskuen ebaluazioan eta dagokion prebentzio-jardueren plangintzan.

Kasu horietan, jarduera hasi aurretik, enpresa-jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretua betez, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Prebentzioa kudeatzeko agiria eta hartu beharreko prebentzio-neurriak.
b) Egin beharreko lanen prebentzio-jardueraren planifikazioa.
c) Hartu izanaren adierazpena, kontratistak eta, hala badagokio, azpikontratistak sinatua, Administrazio kontratatzailearen eskutik honako agiri hauek jaso dituztela egiaztatzen duena: lantokiaren eta haren instalazioen berezko arriskuei buruzkoak, arrisku horiek prebenitzeko prebentzio-neurriei eta jarraibideei buruzkoak, eta larrialdi-egoeretan aplikatu beharrekoak.
d) Hartutako prebentzio-antolaketaren modalitatea. Kanpoko prebentzio-zerbitzuaren kasuan, Segurtasun, Higiene, Ergonomia eta Psikosoziologia aplikatuko hiru espezialitateekin prebentzio-zerbitzuarekin egindako kontratuaren kopia erantsi beharko da, baita Osasunaren Zaintza ere; eta ordainagiria edo gaur egun indarrean dagoela adierazten duen ziurtagiria.
e) Kontratua gauzatuko duten langileen zerrenda eta kontratuaren helbururako erabiliko diren makinak.
f) Kontratua gauzatzera atxikitako langileek kontratatutako lanak egiteko gaitasun medikoaren egiaztagiriak.
g) Kontratua gauzatuko duten langileei prebentzioaren arloan emandako prestakuntzaren eta informazioaren egiaztagiria, lantokiaren eta instalazioen berezko arriskuei buruz jasotako informazioa, arrisku horiek prebenitzeko prebentzio-neurriak eta jarraibideak, eta larrialdi-kasuetan aplikatu beharrekoak barne.
h) Beharrezkoak diren norbera babesteko ekipamenduak (NBE) entregatu izanaren egiaztagiria.
i) Enpresak bere makineria eta lan-ekipoak aurkezten baditu, adostasun-adierazpena, CE marka edo langileek lan-ekipoak erabiltzeko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretura egokitzeko dokumentua, eta horiek erabiltzeko jarraibide-liburua. Halaber, horiek erabili behar dituzten langileek berariazko prestakuntza jaso dutela eta erabiltzeko baimena dutela egiaztatzen duen ziurtagiria.
j) Produktu kimikoen segurtasun-fitxak, enpresa kontratistak edo azpikontratistak produktu kimikoak eman behar dituenean.
k) Segurtasun- eta osasun-arauak betetzen direla bermatu beharko duen pertsonaren nortasuna ezagutaraztea, eta Administrazio kontratatzaileko langileekin koordinatzeko bitartekoak ezartzea. Baita prebentzio-baliabide egokiak eskura jartzea ere, beharrezkoak direnean.

Enpresa kontratistak beste enpresa batekin azpikontratatzen badu kontratuaren xedearen zati bat, enpresa kontratistak azpikontratistari (autonomoei) eskatu beharko dizkio aurreko atalean aurreikusitako egiaztapenak, Administrazio kontratatzaileari eman diezazkion.

Bereziki, enpresa azpikontratistak laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko betebehar guztiak betetzen dituela zaindu behar du, eta, zehazki, araudiak prebentzio-jardueren koordinazioari eta, beharrezkoak direnean, prebentzio-baliabideak eskura jartzeari dagokienez aurreikusten duena betetzen duela.

Enpresa kontratistak bermatu beharko du azpikontratatuak azpiegitura eta bitarteko egokiak dituela jarduera gauzatzeko eta lanak zuzenean zuzentzeko.

Erakunde kontratatzaileak zainduko du kontratistek eta azpikontratistek lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzen dutela. Horretarako, helburu horrekin bat datorren edozein neurri hartu ahal izango du.

4.- Zerbitzu-kontratuaren xedearen izaerak kontratistaren (edo, hala badagokio, azpikontratistaren) esku-hartzea

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

eskatzen badu, eta kontratistak zerbitzuren bat egin behar badu bere langileek zerbitzurik ematen ez duten erakunde kontratatzailearen zentroetan, ezin izango da kontratuaren xede den jarduera hasi, baldin eta aldez aurretik Administrazio kontratatzaileak ez baditu jarduketa hauek egin:

- Lantokian garatzen diren jardueretan eragina izan dezaketen arriskuen berri ematea aldi berean lanean ari diren enpresei, bai eta arrisku horiei aurrea hartzeko neurrien berri ere.
- Enpresa kontratistari larrialdi-neurrien berri ematea.

Lantoki horretan enpresa bateko baino gehiagoko langileak egon behar badira, jarduera hasi aurretik, enpresa-jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretua betez, parte hartzen duten enpresa eta langile autonomo guztiek lankidetzan jardun beharko dute, eta informazioa trukatu beharko dute egingo dituzten jardueren arrisku espezifikoei buruz, baldin eta arrisku horiek beste enpresetako langileei eragin badiezaiekete. Enpresek beren langileei jakinaraziko dizkiete jarduerak batera egiteak dakartzan arriskuak, eta beharrezkoak eta egokiak diren koordinazio-bitartekoak ezarriko dituzte. Horretarako, jasotako informazioa kontuan hartuko da laneko arriskuen ebaluazioan eta dagozkion prebentzio-jardueren plangintzan.

Jarduera hasi aurretik, kontratistak eta, hala badagokio, azpikontratistak jaso izanaren agiria aurkeztu beharko dute, sinatuta, administrazio kontratatzailearen eskutik honako agiri hauek jaso dituztela egiaztatzen duena: lantokiaren eta haren instalazioen berezko arriskuei buruzkoak, garatutako jarduerei eragin diezaieketen lantokiaren arriskuei buruzkoak, eta arrisku horiei aurrea hartzeko neurriei eta larrialdi-egoeretan aplikatu beharrekoak.

5.- Kontratistak (hala badagokio, azpikontratistak) ez badu zerbitzurik ematen erakunde kontratatzailearen zentroetan, baina bere makinak, ekipoak, produktuak, lehengaiak edo lanabesak erabiltzen baditu, jarduera hasi aurretik, Administrazioak beharrezko informazioa emango dio enpresa kontratistari edo azpikontratistari makineria, ekipoak, produktu kimikoak, lehengaiak edo lanabesak erabiltzeko eta manipulatzeko, eta, aldi berean, enpresa kontratista edo azpikontratista, jarduera hasi aurretik, agiri bidez egiaztatu beharko du kontratua gauzatuko duten langileek badutela Administrazio kontratatzaileak emandako makinak, ekipoak, produktu kimikoak, lehengaiak edo lanabesak erabiltzeko eta manipulatzeko beharrezko informazioa eta prestakuntza, eta ezagutzen duela administrazio kontratatzaileak emandako informazioa.

6.- Baldin eta, enpresa kontratistak edo azpikontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, Administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

38.2.8.- Enpresa kontratistako langileei buruzko baldintzak

1.- Enpresa kontratistak bakarrik hautatuko ditu kontratua gauzatzeari atxikitako lantaldean arituko diren langileak, baldintza-agirietan eskatzen diren titulazio- eta esperientzia-baldintzak betetzen badituzte (titulazio- eta esperientzia-betekizun espezifikoak ezartzen diren kasuetan). Nolanahi ere, kontratazio-organoak baldintza horiek betetzen direla egiaztatu beharko du.

2.- Enpresa kontratistak ahaleginak egingo ditu lantaldean egonkortasuna egon dadin, eta osaeran dauden aldaketak puntualak izan daitezen eta arrazoi justifikatuak izan daitezen, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez aldatzeko (eskakizun hori justifikatzen duten arrazoiak daudenean), eta kontratazio-organoari jakinaraziko dio uneoro, AKZAn ezarritako baldintzetan.

3.- Enpresa kontratistak konpromisoa hartzen du bere langileei dagokienez enpresaburu orori dagokion zuzendaritza-boterea modu erreal, eraginkor eta jarraituan gauzatzeko, eta bere gain hartzen ditu honako hauek: negoziazioa, soldatak ordaintzea, baimenak, lizentziak eta oporrak ematea, ordezkapenak, laneko arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak, diziplina-zehapenak ezartzea, hala badagokio, eta gizarte-segurantzaren ondorio guztiak, bereziki

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

kotizazioak eta prestazioak ordaintzea eta, oro har, enpresa enplegatzailearen eta haren langileen arteko kontratu-harremanaren ondoriozko eskubide eta betebehar guztiak.

4.- Enpresa kontratistak bereziki zainduko du kontratua gauzatzera atxikitako langileek beren jarduera gauzatzen dutela, baldintza-agirietan kontratuaren xede gisa mugatutako jarduerari dagokionez betetzen dituzten eginkizunak gainditu gabe.

5.- Enpresa kontratistak gutxienez pertsona bat izendatu beharko du bere enpresako langileen artetik, koordinazio teknikoaz arduratzeko, eta ondorengo eginkizun hauek beteko ditu pertsona horrek:

a) Enpresaren eta erakunde kontratatzailearen arteko solaskide gisa jardutea, haren eta kontratuari atxikitako lantaldeko kideen arteko komunikazioa bideratuz, alde batetik, eta administrazio kontratatzailearen artekoa, bestetik, kontratua gauzatzearen ondoriozko gaiei dagokienez.
b) Lana kontratua gauzatzeaz arduratzen diren langileen artean banatzea, eta kontratatutako zerbitzua emateko beharrezkoak diren aginduak eta jarraibideak ematea.
c) Lantaldeko langileek esleituta dituzten eginkizunak behar bezala betetzen dituztela gainbegiratzea, eta langile horiek lanpostura joaten direla kontrolatzea.
d) Kontratua gauzatzera atxikitako langileen opor-erregimena antolatzea. Horretarako, enpresa kontratistak behar bezala koordinatu beharko du Administrazio kontratatzailearekin, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez aldatzeko.
e) Erakunde kontratatzaileari jakinaraztea kontratua gauzatzera atxikitako lantaldearen osaeran izandako aldaketak, noizbehinkakoak edo iraunkorrak, 38.2.2 klausulan jasotakoaren arabera.

6.- Enpresa kontratistak nahitaez gauzatu beharko du kontratua bere bulego edo instalazioetan, baldintza-agirian aurreikusi ezean zerbitzuak erakunde kontratatzailearen bulegoetan emateko beharra, eta berariaz hala baimendu ezean. Kasu horretan, administrazio kontratatzaileak enpresa kontratistaren esku jarriko ditu enplegatu publikoek betetzen dituztenetatik bereizitako lan-tokiak, eta enpresa kontratistaren ardura izango da langileek zerbitzu horiek esleitutako lekuan ematen dutela zaintzea.

7.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, Administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

38.2.9.- informazioaren segurtasunaren arloko baldintzak

1.- Esleipendunak eta izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren edozein fasetan esku hartzen duen pertsona orok sekretu profesionala gorde beharko dute datu horiei dagokienez, eta datu horiek gordetzeko betebeharra izango dute. Betebehar horiek bere horretan iraungo dute, erakunde kontratatzailearekiko harremanak amaitu ondoren ere.

2.- Esleipendunak datu pertsonalak erabili behar baditu kontratua betetzeko, datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen legeria bete beharko du, bai eta erakunde kontratatzaileak adierazten dizkion jarraibideak ere.

3.- Esleipendunak ezin izango dizkie datu horiek hirugarrenei eman, eta ezin izango ditu erabili kontratua betetzeko beharrezkoak ez diren helburuetarako.

4.- Esleipendunak, tratamendu-eragilea den aldetik, beharrezko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartu beharko ditu, datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta datu horiek, bai giza ekintzaren ondorioz bai ingurune fisiko edo naturalaren ondorioz, aldatzea, galtzea, tratatzea edo baimenik gabe eskuratzea saihesteko.

5.- Esleipendunak baimena emango dio erakunde kontratatzaileari egokitzat jotzen dituen kontrolak egin ditzan kontratua indarrean dagoen bitartean, segurtasun-neurriak betetzen direla egiaztatzeko eta neurri zuzentzaile egokiak

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

hartu ahal izateko.

6.- Kontratu-prestazioa amaitzean, esleipendunak izaera pertsonaleko datuak suntsitu beharko ditu, edo erakunde kontratatzaileari edo administrazioak izendatutako tratamendu-eragile bati itzuli beharko dizkio.

7.- Baldin eta, enpresa kontratistak edo azpikontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, Administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

38.3.- Baimenak eta lizentziak kudeatzeari buruzko betebeharrak

1.- Enpresa kontratistaren kontura eta haren erantzukizunpean izango da, kontratazio-organoak berak kudeatzea erabakitzen ez badu, lanak behar bezala egiteko behar diren baimen eta lizentzia guztiak lortzea, eta erakunde eskudunen baldintzak eta aginduak bete beharko ditu.

2.- Baimen edo lizentzia horiengatik tasak, fidantzak edo bestelako gastuak eskatzen direnean, enpresa kontratistak ordaindu edo gordailatuko ditu.

38.4.- Kontratistari eska dakizkiokeen gastuak

Kontratistaren kontura izango dira kontratua eskritura publikoan jasoz gero kontratua formalizatzeko gastuak eta kontratua gauzatzeko behar diren lizentzia eta baimen guztiak.

38.5.- Lan-programa

1.- Administrazioak komenigarritzat jotzen badu lan-programa bat eskatzea, baldintza teknikoen agirian ezarritakoaren arabera, esleipendunak aurkeztuko du, Administrazioak onar dezan, hautatutako irtenbidearen dokumentuak onartzen diren aldi berean, eta, hala badagokio, dagozkion epe partzialak ezarriko dira.

2.- Kontratu-baldintzak aldatzen diren bakoitzean, esleipendunak programa hori gaurkotu eta eguneratu beharko du, horretarako jasotzen dituen jarraibideei jarraituz.

39.- Herritarren aldeko zuzeneko prestazioak dakartzaten zerbitzu-kontratuei buruzko berezitasunak

1.- Enpresa kontratistaren betebeharrak izango dira zerbitzua hitzartutako jarraitutasunarekin ematea, eta erabiltzaileei zerbitzua erabiltzeko eskubidea bermatzea ezarritako baldintzetan eta, hala badagokio, finkatutako kontraprestazio ekonomikoa ordainduta; zerbitzuaren ordena ona zaintzea; zerbitzuaren garapenak eskatzen dituen eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalteak ordaintzea, non eta kalteak ez diren Administrazioari egotz dakizkiokeen arrazoiek eragindakoak; eta, hala badagokio, kontratuaren arabera nahitaez entregatu behar dituen obrak eta instalazioak, kontserbazio- eta funtzionamendu-egoera egokietan entregatzea.

2.- Kontratistak kontratua ez betetzearen ondorioz zerbitzua larri nahasten bada, beste baliabide batzuekin ezin bada konpondu eta Administrazioak kontratua suntsiaraztea erabakitzen ez badu, hura bahitzea edo atzematea erabaki ahal izango du, nahasmendua desagertu arte. Nolanahi ere, benetan eragin dizkion kalte-galerak ordaindu beharko dizkio kontratistak Administrazioari.

40.- Jabetza intelektualaren eskubideak

Kontratuaren xedea jabetza intelektualeko edo industrialeko eskubide batek babestutako produktuak garatzea eta eskura jartzea bada, eskubide hori Administrazio kontratatzaileari lagako zaio.

41.- Zigorrak: berandutzeagatik eta beste zigor batzuk

1.- Kontratazio-organoak zigorrak ezarri ahal izango dizkio enpresa kontratistari, SPKLren 192. eta 193. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, jarraian adierazten diren ez-betetzeengatik:

a) Epe osoa edo epe partzialak betetzen berandutzeagatik.
b) Prestazioa gaizki betetzeagatik, hizkuntza-baldintzak, kontratazio publikoari aplikatu beharreko integritate instituzionalaren esparrua eta jokabide-kodea edo kontratua gauzatzeko beste edozein baldintza berezi ez betetzeagatik edo oker betetzeagatik (SPKLren 192. artikulua).
c) Eskaintzak baloratzeko irizpide gisa kontuan hartutako alderdiei eragiten dien ez-betetzeagatik edo gaizki betetzeagatik (SPKL, 122. artikulua).
d) Soldatak ez ordaintzeagatik edo horien ordainketak behin eta berriz atzeratzeagatik, edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritako soldata-baldintzak baino txikiagoak aplikatzeagatik, baldin eta larria eta dolozkoa bada (SPKL, 201. artikulua).
e) Azpikontrataziorako betebeharrak, baldintzak eta gainerako betekizunak hausteagatik (SPKL, 215. artikulua).
f) Laneko Segurtasun eta Osasun Plana aurkezteko epea ez betetzeagatik, beharrezkoa denean.
g) Foru sektore publikoaren kontratazioan erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak sartzeari buruzko urriaren 29ko 11/2014 Foru Arauaren 30.2 artikuluan jasotako betebeharrak ez betetzeagatik.

2.- Aurreko puntua ez betetzeagatiko zigorren zenbatekoa honako hau izango da:

a) a) letran jasotako arrazoiarengatik, SPKLren 193. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako zenbatekoa, salbu eta ezaugarrien koadroko **24. atalean** beste batzuk ezartzen badira.
b) b), c) eta d) letretan adierazitako arrazoiengatik, kontratuaren prezioaren %4, salbu eta kontratazio-organoak, arrazoituta, ez-betetzea larria edo oso larria dela uste badu; kasu horretan, %7ra iritsi ahal izango da lehen kasuan, eta %10era bigarrenean. Ez-betetzea errepikatzea kontuan hartuko da larritasuna baloratzeko.
c) e) letran adierazitako arrazoiarengatik, azpikontratuaren zenbatekoaren %50 arte.
d) f) letran adierazitako arrazoiarengatik, eguneko zigor bat, euro batekoa kontratuaren prezioaren 5.000 euroko, eta, hala badagokio, lehenengo ziurtagirian deskontatuko da.
e) g) letran adierazitako arrazoia ez-betetze oso larritzat joko da.

3.- Kontratuaren ezaugarri bereziak kontuan hartuta, kontratua behar bezala gauzatzeko beharrezkotzat jotzen bada aurreko atalean adierazitakoez bestelako zigorrak ezartzea, ezaugarrien koadroko **24. atalean** zehaztuko dira zigor horiek.

4.- Enpresa kontratista berandutza egoeran dagoela aitortzeko ez da beharrezkoa izango Administrazioak aldez aurreko errekerimendua egitea.

5.- Baliabideak adskribatzeko konpromisoa, hizkuntza-baldintzak edo esleitzeko beste edozein baldintza ez betetzeagatik edo gaizki betetzeagatik ezarri beharreko zigorrak kontratazio-organoak ez-betetzea egiaztatzen duen unean ezarriko dira.

6.- Eskaintzak baloratzeko irizpide gisa kontuan hartutako alderdiei eragiten dieten ez-betetzeengatiko edo gaizki betetzeagatiko zigorrak ezarriko dira, baldin eta kontratazio-organoak egiaztatzen badu, hartzeko garaian, kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratistak ez duela kontratua gauzatu edo bere eskaintzan hartutako konpromisoren bat bete, betiere esleipenerako garrantzitsuak izan badira.

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

Bete ez diren konpromisoak garrantzitsuak direla ulertuko da, baldin eta, bete ez den irizpidean kontratistak lortutako puntuazioaren %50 deskontatuta, haren eskaintza hobekien baloratutakoa izango ez balitz.

7.- Gaizki betetzeagatiko zigorrak ezarriko dira kontratistak akats horiek konpontzeko legez duen betebeharra gorabehera.

8.- Zigor-ezarpenak ez du baztertzen kalte-galerengatiko kalte-ordaina (SPKLren 196. artikulua).

9.- Berandutze-zigorren zenbatekoa fakturetatik edo ziurtagirietatik kenduko da, eta, hala badagokio, bermetik, aipatutako agirietatik kendu ezin direnean. Bermetik kentzen direnean, kontratistak bermea berriz jarri edo handitu beharko du, kontratua gauzatzen denetik 15 egun naturaleko epean; bestela, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

43.- Kontratuaren aldaketak

1.- Behin kontratua burututa, interes publikoko arrazoiengatik baino ezin izango ditu kontratazio-organoak aldaketak sartu kontratuan, baldin eta hala aurreikusten bada ezaugarrien koadroko **22. atalean**, edo SPKLren 205. artikuluan ezarritako kasuetan eta mugekin.

Prezioa gauzatze-unitateen bidez zehazten denean, ez dira aldaketatzat hartuko prestazioa behar bezala gauzatzen den bitartean kontratuan aurreikusitako unitateen aldean benetan gauzatutako unitateen kopuruan soilik gertatzen diren aldaketak. Unitate horiek likidazioan jaso ahal izango dira, betiere gastuaren gehikuntza kontratuaren prezioaren ehuneko 10etik gorakoa ez bada.

2.- Kontratuan aldaketak egin behar direnean, kontratuaren arduradunak dagokion proposamena idatziko du, eta justifikatzeko, deskribatzeko eta baloratzeko dokumentuek osatuko dute proposamen hori. Administrazioak aldaketa onartzeko, enpresa kontratistari entzun beharko dio aldez aurretik.

3.- Kontratistak nahitaez egin beharko ditu ezaugarrien koadroko **22. atalean** aurreikusitako aldaketak eta SPKLren 205. artikuluan jasotako kontratu-aldaketen kasuekin bat datozenak, baldin eta aldaketa horiek, banaka edo batera, kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20 gainditzen ez duten aldaketak eragiten badituzte (BEZa kanpo), eta kontratazio-organoak erabaki beharko ditu, SPKLren 191. artikuluan eta HAKLEOren 102. artikuluan aurreikusitako prozedura izapidetu ondoren, eta administrazio-agirian formalizatu beharko dira SPKLren 153. artikuluan adierazitakoaren arabera, behin betiko bermea egokitu ondoren, hala badagokio.

4.- Kontratistak eta kontratuaren arduradunak ezin izango dute behar bezala onartu gabeko aldaketarik sartu edo gauzatu. Administrazioak behar bezala baimendu ez dituen kontratu-aldaketen ondorioz, enpresa kontratistak erantzukizuna izango du, eta, hala badagokio, aldaketek eragindako zatia berregin beharko du, inolako ordainketarik jasotzeko eskubiderik gabe.

5.- Kontratuko baldintzak aldatzen diren bakoitzean, kontratistak lan-programa eguneratu beharko du.

43.1.- Aurreikusitako aldaketak

1.- Kontratu hau aldatu ahal izango da, hala aurreikusi bada, baldintza-agiri honen ezaugarri-koadroko **22. atalean** zehaztutakoaren arabera, hor ezarritako baldintzekin, norainokoarekin eta mugekin, zeinak ezin izango baitute hasierako prezioaren ehuneko hogei gainditu.

2.- Aldaketa-arrazoi bat baino gehiago aurreikusiz gero, inguruabarrak, baldintzak, norainokoa eta mugak horietako bakoitzari buruzkoak izango dira.

3.- Aurreikusitako aldaketek ez dute inola ere ekarriko kontratuan aurreikusi gabeko unitate-prezio berririk ezartzea.

43.2.- Aurreikusi gabeko aldaketak

1.- Interes publikoko arrazoiak direla-eta, ezaugarrien koadroko **22. atalean** aurreikusitakoez bestelako aldaketak egin

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

ahal izango dira, baldin eta behar bezala justifikatzen bada SPKLren 205.2 artikuluko balizko tasatuetako bat edo batzuk gertatu direla, eta aldaketa horiek behar-beharrezkoak diren arrazoi objektiboei erantzuteko aldaketak egitera mugatzen badira.

2.- SPKLren 205. artikuluan ezarritakoa alde batera utzi gabe, kasu horietan kontratua aldatu aurretik, espezifikazio teknikoak idatzi dituen pertsonari entzun beharko zaio, baldin eta zerbitzu-kontratu baten bidez kontratazio-organotik kanpoko beste pertsona batek prestatu baditu, gutxienez 3 egun naturaleko epean egokitzat jotzen dituen oharrak egin ditzan.

44.- Kontratistari ordaintzea

1.- Zerbitzua entregatu eta adostasunez jaso ondoren ordainduko da, aldez aurretik fakturak edo agiri baliokideak, ziurtagiriak (entrega partzialak badira) eta, hala dagokionean, harrera-akta aurkeztu ondoren. Horretarako, kontratistak 30 egun naturaleko epean aurkeztu beharko du faktura, entregatzen den egunetik zenbatzen hasita.

2.- Kontratistak eskubidea izango du konturako ordainketak jasotzeko, kontratuaren xedearen barruan sartzen diren kontratua gauzatzeko prestaketa lanen zenbatekoagatik, betiere, ezaugarrien koadroko **28. atalean** adierazitako baldintzetan, eta aipatutako ordainketak berme-prestazioaren bidez ziurtatu beharko dira.

3.- Fakturak formatu elektronikoan aurkeztu beharko dira, Faktura Elektronikoa Sustatzeari eta Sektore Publikoko Fakturen Kontabilitate Erregistroa Sortzeari buruzko abenduaren 27ko 25/2013 Legean ezarritako kasuetan.

4.- SPKLren 198. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Administrazioak 30 egun naturaleko epean ordaindu beharko du prezioa, emandako zerbitzuak kontratuan xedatutakoarekin bat datozela egiaztatzen duten agiriak onartzen diren egunetik zenbatzen hasita, eta, berandutzen bada, 30 egun naturaleko epe hori betetzen denetik aurrera, berandutze-interesak eta artikulu honetan bertan aurreikusitako kobrantza-kostuen kalte-ordaina ordaindu beharko dizkio kontratistari.

5.- Edonola ere, enpresa kontratistak ez badu erregistro administratiboan faktura aurkezteko duen 30 egun naturaleko epea betetzen, interesen sortzapena ez da hasiko harik eta faktura dagokion erregistroan aurkeztu eta 30 egun natural igaro arte, eta baldin eta bitartean administrazioak ontzat eman ez badu, hala badagokio, eta ordaindu ez badu.

6.- Bestalde, Administrazioak onartu egin beharko ditu entregatutako zerbitzuak kontratuan xedatutakoarekin bat datozela egiaztatzen duten agiriak, ondasunak entregatu eta hurrengo 30 egun naturalen barruan.

7.- Fakturek honako datu hauek izan beharko dituzte:

- Erakunde kontratatzailearen identifikazioa.
- Kontratazio-organoaren identifikazioa.
- Kontabilitate publikoaren arloan eskumenak dituen organoaren identifikazioa.
- Kontratatutako prestazioaren hartzailearen identifikazioa.

8.- SPKLren 200. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta hor ezarritako baldintzetan, kontratistek hirugarren pertsona bati laga ahal izango diote kontratuaren prezioa kobratzeko duten eskubidea, legez ezarritako edozein bide erabiliz. Lagapen horrek ondorioak izan ditzan, eta Administrazioak lagapen-hartzailearen aldeko ordainketa-agindua eman dezan, ezinbesteko baldintza izango da lagapen-erabakia Administrazioari modu frogagarrian jakinaraztea.

45.- Kontratua etetea

Kontratua eteten bada, SPKLren 208. eta 313. artikuluetan eta HAKLEOren 103. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da. Aldi baterako, partzialki, osorik edo behin betiko eteten bada, etete horren akta egingo da.

46.- Harrera eta berme-epea

46.1.- Harrera eta likidazioa

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

1.- Enpresa kontratistak kontratuan ezarritako epearen barruan eman beharko du zerbitzua, baldintza teknikoen eta administrazio-klausulen arabera.

2.- Kontratua gauzatutzat joko da enpresa kontratistak, kontratuaren baldintzen arabera eta Administrazioa gogobeteta, kontratuaren xedea osorik betetzen duenean. Horretarako, kontratuaren arduradunak dokumentazioa edo prestazioa aztertuko du eta, ezaugarri teknikoak eta baldintza administratiboak bete direla uste badu, zerbitzuen harrera egitea proposatuko du.

3.- Kontratuaren xedea amaitzen denetik hasi eta hilabeteko epean, kontratuaren xedearen harrera-egintza formala egingo da.

Era berean, harrera partzialak egin ahal izango dira bereizita erabil daitezkeen kontratuaren zatien gainean.

4.- Segidako traktuko kontratuen kasuan, kontratatutako prestazioa amaitzean edo kontratu-epea amaitzean egingo da harrera.

46.2.- Berme-epea

1.- Berme epea ezaugarrien koadroko **11. atalean** ezarritakoa izango da edo, hala badagokio, esleipendunak eskainitakoa.

2.- Epe horretan egiaztatzen bada egindako lanetan ezkutuko akats edo okerrak daudela, Administrazioak eskubidea izango du kontratistari horiek zuzen ditzala eskatzeko.

3.- Berme eperik aurreikusi ez denean, jarduera soileko kontratuak epea betetzeagatik iraungiko dira, baina horrek ez du eragotziko Administrazioak eskumena izatea kontratistari erantzukizuna eskatzeko, ondoren hautematen den balizko edozein ez-betetzeagatik.

Kontratistak eskubidea izango du kontratatutako prestazioa betetzearen inguruan egiten diren oharrei buruz entzuna izateko.

4.- Berme epea amaitu eta Administrazioak eragozpenik jarri ez badu, egindako prestazioagatiko erantzukizunetik salbuetsita geratuko da kontratista, obra proiektuak egiteko kontratuetarako berezitasunen kalterik gabe.

46.3.- Bermea itzultzea

Ezaugarrien koadroko **11. atalean** adierazitako berme-epea igaro eta Administrazioak eragozpenik jarri ez badu, kontratistak ez du inolako erantzukizunik izango egindako zerbitzuagatik, eta behin betiko bermea itzuli edo kitatu egingo da.

47.- Kontratua suntsiaraztea

1.- SPKLren 211. eta 313. artikuluetan ezarritakoak izango dira kontratua suntsiarazteko arrazoiak.

Kontratu-ebazpena HAKLEOren 109. artikuluan eta hurrengoetan zehaztutako prozeduraren arabera izapidetuko da, ebazpen-prozedura hasten den egunetik sei hilabeteko epean, eta SPKLren 213. eta 313. artikuluetan adierazitako ondorioak izango ditu.

2.- Gainera, kontratazio organoak kontratua suntsitu ahal izango du kontratatutako lana egiteko ezarritako epe osoan ez-betetzerik izanez gero, edo, arrazoi bidez, epe partzialetan izandako ez-betetzeak direla eta epe oso betetzea ezinezkoa izango dela iritziz gero, betiere kontratazio organoak ez badu erabakitzen SPKLko 193.3 artikuluan xedatutako zehapenak jartzea.

3.- Honako arrazoi hauengatik ere suntsiarazi ahal izango da kontratua:

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus

a) Kontratua gauzatzen den bitartean, kontratistak soldatarik ez ordaintzeagatik kontratuari atxikitako langileei, edo langile horientzat indarrean dauden hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.

b) Arrazoi horrengatiko suntsiarazpena, oro har, enpresa kontratistako langileen ordezkariek eskatuta erabakiko da, salbu eta soldatak ordaintzen ez dituzten langileen kasuan subrogazioa bidezkoa bada SPKLren 130. artikuluaren arabera, eta enpresa kontratistak zor dituen soldaten zenbatekoa kontratuaren esleipen-prezioaren ehuneko 5 baino handiagoa bada; kasu horretan, suntsiaraztea ofizioz erabaki ahal izango du organoak, zuzenean.

c) Baldintza-agiri honen arabera laneko segurtasun eta osasunaren arloko betebeharrak ez betetzeagatik, ez-betetzea oso larria bada.

d) Kontratua ezin gauzatzeagatik hasieran kontratuari esleitutako langile-kopuruarekin.

e) SPKLren 294. artikuluaren c), d) eta f) letretan jasotako arrazoiengatik, herritarren aldeko zuzeneko prestazioak dakartzaten kontratuetarako.

4.- Halaber, SPKLren 211. artikuluaren babesean kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira **38.3 klausulan** adierazitako betebeharrak eta kontratuaren funtsezko betebehar gisa ezaugarrien koadroko **23. atalean** adierazitakoak ez betetzea.

5.- Enpresen aldi baterako batasunen kasuan, kideetako bat SPKLren 211.1 a) eta b) artikuluaren kasuan dagoenean, Administrazioak ahalmena izango du aldi baterako elkartea osatzen duten gainerako enpresei kontratu-betebeharrak betetzeko eskatzeko edo kontratua suntsiaraztea erabakitzeko.

6.- Hala ere, ez-betetzeengatiko zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 5eko multiplora iristen direnean, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko edo kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzeko, zigor berriak ezarrita.

Alegian, 2023ko maiatzaren 15ean
Lehendakaria,
Stua.: Olatz Peon Ormazabal

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Plaza Zaharra, 6 – 20400 Tolosa - Tel. 943676216 - info@tolosaldekomankomunitatea.eus - www.tolosaldekomankomunitatea.eus